

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXXIV Zenbakia.

1996

Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

Orr.

Aita Santi Onaindia, Euskerazaintzakoa.- Paulin. (Barruko azalean)	
Erdiaroko Euskal izenen idazkera.- Latiegi tar Bixente.-	1
Euskera ta erromatarrak.- Latxaga	15
Bizkaiko Foruaren Euskerazko lenengo itzulpena.- Puxana tar Pedro	22
Arzeluz tar Amale andereño idazlea.- Latxaga	31
Aita Onaindia Euskal olerkarien artean txapeldun.- Latxaga	35
Aita Santi Onaindia.- Zubikarai tar Augustin	40
Auntz Basatia.- Albisu tar Anastasio	55
Esaldi jatorrak.- Oñatibia tar Manu (Atzeko azaletan)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

AITA SANTI ONAINDIA EUSKERAZAINTZAKOA

Zeru izarrak zabaldu eutzun
argia Euskalerrira
izkuntza eta jendetza baten
alor bikain zabalera;
dana zenkusan eder-miñetan
deika biotz barrenera;
lagun zakiguz euskal semea
eskuak jalkiz lanera.

Erantzuera jatorra izan zan
semeagandik dejan,
gorputz, gogo ta bizi guztia
eskeinduz dei maltean;
goiz ta arratsalde urratu ziñan
abestuz maitasunari;
arbaso erri ta Euskadiri ta
bere Jaun ta Jabeari.

Jakituri az sortuak sortu
olerki bikaiñenetan,
iñoiz ez ziñan miñez antzutu
ederraren lerroetan;
amai bagea izan be ba da
Euskalerrri ederretan;
beregana dauka arantza zar bat
neke-samin astunetan.

Liburu sakon aundi ederrak
benetan agurgarriak,
euskal itzetan sortu zenduzan
betiko aipagarriak;
zeru ta lurra alkartu dozuz
oroituz zoriontsuak,
ta aren idatzi zorgarriak
jarririk euskeratuak.

Ezin dot aztu, ezin dot itzi
olerkien sariketa, .
zenbat lan batu zenduzan
elertiak bizkortuta;
eskola antzo biur zenduan
Larrako olerkaritza,
Onaindia zan buruzagia
olerkarien ardatza.


Paulin

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia



Eusko Jaurlaritza




EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L.- Bilbao



ERDI AROKO EUSKAL-
IZENEN IDAZKERA
(II atala)
BALPUESTA'KO
GOTZAI DIAREN LARRUKIA
(IX mendea)

Sarrera (2)

BALPUESTA'KO GOTZAIGOAREÑ SORKUNTZA: Esanik utzi genduan Araba'ko Gobiaren'en dagola Balpuesta, Autrigoitarrena izandako lurraldean, eta bere egiazko izena, lateraz, "Vallis Composita" zala, eta izkuntza guztiei atsegin izan zaizkien laburpenetako bat egiñez, "Vallis Posita".

Ez dakit sekulan esan dedan erromateko idazle klasikoek "Autrigones, eta batzuetan "Austricones", Euskalerrri zarraren sarkaldean bizi ziran Euskaldunei esaten zieten. Autrigonia, Itxasotik Oka mendietaraiño luzatzen zan. Zabalean, berriz, Nerbion ibarrean asita, Birovesca (Bribieska)'tik aruntz, an, nonbait, Oña uriaz aruntzako lurretan Kantabritarrekin muga egin arte iristen zitzaigun.

Lau ziran Autrigoni'ren itxasertzeko kaiak: Portus Amanus (Abando?), Flábiobriga (Sanhurtzi?, Kastro Urdiales?), eta Laredo. Bere uririk aundiena Birovesca zuan (Bribieska).

Garrantzi aundiko bi bide nagusik urbiltzen zuten Autrigoni kulturazko munda: Gure gaurko Euzkaldi guzia-barrena Burdigala (Bordele)'tik Asturika (Astorga)'ra zijoana, eta bide ori Birovesca (Bribieska)'n asita, Iber'ibaia osoazear, Tarraco (Tarragona)'rekin alkartzen zuana.

Esan dut noski oso aran polita dala Gobiaran. Ikus, XVIII mendean ain itzal aundiko azterlari ta edestilari izandako Enrike Florez'ek bere "España Sagrada"n egiten dion aintzapena:

"Valle cercado de montes, surtido de aguas, y de cielo tan claro que ni tiene nieblas ni ha pasado epidemias ni tempestades de granizo ni piedras" (Edic.Prin.XXVI,7).

Alboko orrian duzu Autrigoni'ko mapa. Bertan, azpimarraturik, bi erri-izen ikusi dezazkezu: gotzai-uri izan zitzaigun Auka (Oka) eta Gobiaran'go basarritxo bat: (Osma). Onen sarkaldera, aski bertan aurkitzen bait da gure "Vallis Posita" edo Balpuesta.

Ainzuzen Autrigoni ori izan zuten elizbarruti "Vallis Posita"ko gotzaiek.

"Vallis Composita", erromatarrek, "etsaiengandiko erasoer erantzuteko ongi gertuturik zegoan aranari" esan oi zioten.

Nork eman ote zion izen ori? Ez beintzat bertako biztanle Autrigoi Euskaldunek. Aiek, VIII eta IX mendeetan soilki Euskeraz mintzatzen bait ziran.

Ezta erromatarrek ere. An beinere erromatarrek aski luzaro bizitzen egon zirala sinistu daitekean gauza ez bait da.

Geroagokoa du, beraz, izen ori. Erdiaro Garaiekoa. Nork emana? Bertako gotzaiek bearbada. Eta agian, baita Asturietako Errege Bisigotek ere. "Gazteluri" edo orrelako euskal-izen bat lateratuz? Baleike. Orrelako lateraketak maiz egin bait dira gure toki-izen euskaldunekin. Arritzekoa ez dan gauza, izen oiek damaizkiguten larrukiak lateraz idatziak izan ziran ezkeru.

Balpuesta bertako Autrigoiek Euskeraz beren erriari zer izen ematen zioten jakiterik ez dugu. Agian, bertako toponimia sakonago aztertuko ba'litz...

Bigarren arazo bat ere sortzen digu erri orren izenak: "Vallis Composita": "Gudarako Gertutako Arana". Nork egin ote zion gertuketa ori Balpuesta'ko erriari?

— Erromatarrek? Ez. An ez bait zan luzaro gudarozte erromatarrik izan.

—Euskaldunen erasoetatik beren buruak babesteko, Toledo'ko Bisigotek? Eztare, mendi-tarte artan ez bajt zan asti luzez Bisigotiarrik bizitu.

—Asturietako Bisigotek? Ez ba. Asturietako bisigotek egiñik aurkitu bait zuten Balpuesta'ren gudarako gurtuketa ura. Ala deitzen dio "Posita", "Gudarako Gertutua" II Alfontso Asturietako Erregeak 804 larrukian, Elizbarruti berria nola sortu zuan esaterakoan.

Nork egiña izan ote zan ba gudarako gertuketa ura? eta noren aurka?

izan bait zan VI mendearen erdiaz gero, - Leobigildo (568-587) Erregeaz gero Euskaldunen eta Bisigoten arteko gudatea.

Leobigildo bera ere Autrigoen lurretan ibilli zan borrokalari.

Aurrena, Autrigojen Sarkaldean, Kantabritarrei eraso zien 568'garren urtean, ots, Bisigoten Uri Nagusia zan burutza jantzi zuan urtean bertan!

Entzun Sebilla'ko Doneisidor Bisigotiarren idazlerik bikaiñenari:

"Leobigildo'k 606'garren aroan ("Aera DCVI") Justino Gaztea izeneko Inpetorearen irugarren urtean Ispanietako eta Galietako Erregetza arturik, ("adepo Spaniae et Galliae principatu") guda-bitarte Laterria zabaltzea eta diru-bilketak ugariagotzea erabaki zuan "ampliare Regnum bello et augere opes statuit". Eta guda nairik bait zegoan gudaroztea bera ere, garaitzaz-garaitza gauza aundiak lortu zituan (Leobigildo'k), Kantabritarrak menderatuz, Aregia artuz eta Sabari guztia irabaziz" (Hist.Gothorum,287).

Naikoa, Kantauritarren aurkako Leobigildo'ren jilketa ori, ajen auzoko Autrigoiak kezkatzeko.

Gaiñera, Kantabritarren aurkako Eraso ura ez zezakean Leobigildo'k aurrera eramane Autrigoen lurretara sartu gabe. Autrigoen lur bait ziran, egoalde aietan, Oka mendietatik Deobriga (Puenteleña)rako Asturica-Burdigala bide nagusiaren zatia guztia, eta, Deobriga'tik gora, Ibero ibaiaren arana. Ori..., Leobigildo'k Kantabri'ra iristeko Pisuerga'ren ibarra artu ez ba'zuan! Sinistekoa ez dan gauza, andik Bisigoten gudaroztea eramateko, kixazko biderik ez bait zuan!

Leenagotik ere bazuten Autrigoiak zertaz kezkatu bizia. Beren sarkaldeko mugaraino iristen bait ziran beste barbaro batzuk ere: Suebiarrak.

Ikus nola damaizkigun Suebiarren erreinuko mugak V mendeko Jordanes edestilariak bere "Historia Getarum seu Gothorum et facta eorum" izeneko liburuan. Barbaritarra zan bera ere, Alandarra ainzuzen. Baiñan Ostrogotoen Erregearen serbitzura bizi izan zan Itali'n. Kristau egiñik, apaiz, ziurki, eta, agian, gotzai ere izan zan.

Goiz asi ziran Suebiarrak Euskaldunen aurka borrokan: Rekiario —aien Erregerik indartsuenak— bitan eraso zien gure Asabei; eta, gero, Leobigildo'ren aroan ere, gaiñean izan zuten Autrigoiak, borrokalari, Miro Suebiarren Erregea.

568'an gertatu zan aipatu dugun Leobigildo'ren eraso Kantabritarren aurka. Beste bi aldiz ekin ziren gero Errege onek, Euskaldunei, Biklaratarrak idatzi zigunez: 374'an, Amaya uria artu zuanean, "His diebus Leovigildus Rex Cantabriam ingressus, Provinciae pervasores interfecit, Amaiā occupat, opes eorum pervadit et Provinciam in suam revocat ditionem. "Egun aietan, Leobigildo Erregeak, Kantabri'ra sartuta, Probintzi artara menderaturik zeukaten etorkiñak erail, eta Amaia artu zuan, lurralde aietako aberastasunak jaso, eta Probintzi osoa bere esanera birripiñi zuan".

Oroi, esan dugun lez, Kantabritarrei ekiteko bearrekoa zuala Leobigildo'k Autrigoioren lurretara muturra sartzea.

Leobigildo'ren bigarren eraso, 381'koa da: "Leobigildus Rex partem Vasconiae occupat, et civitatem quae Victoriacum mnuncupatur, condidit (id.ib.): "Leobigildo Erregeak Baskoni'aren zati bat artuta, Victoriacum izeneko urja eraikj zuan".

Gogorrek izan ziran bi eraso oiek, baiñan ez dirudi Leobigildo, Euskalerrian, Iber'ibaietik iparreruntz gora Autrigoioren lurretara sartu zanjk. Are geiago, Aldayeta'n Zadorra'ko urtegiaren ertz-ertzean agertu-berria dan VI eta VII mendee-tako illobitegi aunitz aundia, Bisigotak sekulan Araba'ra sartu ez zirala adieraz-tera datorkigun ezker. Ez Toledo'ko ez Asturietako Bisigotak. Auek ere, Toledo'ko aiek bezala, ez baijt zuten, bi mendez Araba'ko zelai-ean ain jendez ugaria zan eta izkilluz ain oparo orniturik aurkitzen zan gudari talde Akitanian aren ezagutzarik izan. Ez duzu ez Toledo'ko ez Obieto (Obiedo)'ko kronikala-rietan Aldayeta'ko obitegi oparo aren aipurik aurkituko.

Nere ustez, Leobigildo'ren "Victoriaco" ura ez da "Bitoria-ko" irakurri bear, "Biloria'ko" baijik, ez bait zan ez gaurko Bitori'n ez gaurko Bitoriano'n sortua izan, gaurko "Viloria de la Rioja"n baijik., Autrigoioren lurralde aietan ibilli bait zan Leobigildo.

Badakit, orain badirala Leobigildo'ren "Victoriacum" ura Iber'ibaiaren ibarretan Naparroa eta Zaragoza'ren artean jarri nai dutenak, an itxura ortako toki-izenen bat noizbait izan ornen zalako, baiñan ez naramate aburu ori ontzat ar-tzera, aurkezten dituzten arrazoiak.

Leobigildo'z gero, etenke izan zuten Euskaldunek Bisigoten eraso zipotzei erantzun bearra. Baita Arabitarrek Toledo'ko erreinu Bisigota ezabatu zutenz gero ere, Asturietako Errege Bisigotek Toledo'ko Errege Bisigoten bidetik jarraitu bait zuten. Arabitarrek baiño leenago jo zioten ba Autrigoni Euskaldu-nari Asturietako Errege Bisigotek.

Ez zaigu ain ajolagarri Balpuesta'n eraikitako guda-babes aiek nolakoak izan ziran jakitea. Aipatutako Flórez'ek (l.c.), Garibai'k eta Argaiz'ek idatzita-koari jarraituz, onako pitxikeritxo polit au damaigu:

"Fortificaron ... Valpuesta, con murallas, y foso, dándola sólo tres puertas: dos con puentes levadizas, y la otra defendida con Torre y Casa fuerte de los Señores Condestables de Castilla. Las puertas barreadas de hierro, y con ras-trillos: las murallas de veinte pies de ancho: indicios de ser escogida para for-taleza. El buque, —arresi-arteko gunea—, es de doscientos vecinos: pero tiem-po ha se halla reducida ... cinquenta, • 60, vecinos..."

Barkatu bezait Aita Flórez jakintsu eraspengarriak, baiñan Gobaran'en ez da sekulan Garibai arrasatearrak eta Argaiz errioxarrak aurkezten diguten bezalako uri ikaragarriak izan.

Madoz'ek ere aipatzen du 1849'n Balpuesta'ko arresi bildurgarri ura, baiñan ematen duanez, Garibai'k eta Argaiz'k esana gogoan zuala: "Ño hay "Balpuesta'n) edificio notable sino una torre o fuerte antiguo propio del Almirante de Castilla, que forma parte de la gruesa muralla que en otro tiempo rodeaba la villa".

Iruzurturik dabil. Balpuesta'k ez zuan beñere lodiz "20 pies"ko arresirik izan. Gaztelerriko "oiña", "vara" esaten zioten neurkiñaren irurdena da. Gaurko gure neurkeraren araura, Gaztelerriko "oiñak" 278'5 milimetro ditualarik, 5 metroren ingurukoa izango zan arresi aien zabalunea. Ori, eta iru ate galant aiei-buruzko guztia... ameskeri utsa!

Berdin an bizi ornen ziran 200 sendietaz irakurri duzuna ere. Madoz'ek, Balpuesta'k 1849'an, udaletxea ta espetxea zenbatuta ere, 42 etxe besterik ez zituala diosku: "Cuarenta y dos casa, la consistorial y cárcel reunidas". Etxe oietatik ordea, geienak utsik zeuden, dirudiane; erri artako biztanleak irurogei besterik ez bait ziran: "Pero su población es de 17 vecinos: 60 almas".

Balpuesta'ko Gotzaitzaren sorkuntzak arazo kilikagarri bat dakarkigu edes-ti-zale Euskaldunoi:

Sorkuntza ori, Araba'ko Lurretan egin zan.

Asturietako Errege Bisigotiar batek egin zuan.

Araba, ordea, ez zan sekulan ez Toledo'ko ez Asturietako erreñu Bisigotaren probintzi bat izan.

Araba beti izan zan lurralde yarea. Bere buruaren jabea.

Zer-zala-ta asi ote zan ba Asturietako Errege Bisigotiar ura Araba'ko lurretan gotzaitza-sorketan?

Arazo orren izkutua nola argitara zabaldu?

Saia gaitezen beintzat izkutu orren gunera argi pixka bat sartzen:

Egia da, Araba, beti yare, beti bere buruaren jabe izan zitzaigula.

Edestilari Arabitarrek ere ederki bereizten dituzte Asturi eta Araba. Bien artean "Al Kile" esaten dioten lurralde bat ipintzen dute. Eta lurralde ori, Al Kile, beti Araba'rekin lotzen dute. Beñere ez Asturi'rekin. Arabarrak ziran, beraz, "Kile" aiek babesten zituzten gudariak. "Kile", arabieraz, "gaztelu" da; "al kile", "gazteluak", "los castillos", edo "La Tierra de los Cstillos" gaztelera. Euskeraz, askoz obeki, "Gaztelueta", gero "Gaztela", gaztelera "Castilla" esango zitzaion lurraldea.

Arabitarren Gaztelueta ura non zegoan jakitea ez da gauza erreza. Oka eta Obarenes izeneko mendien artean zabaltzen dan Bureba deritzan aran edatsuan?

Ez dakit ba..., batzuetan, Arabitarrek, guduketan Araba'n ibilli zirala diote-nean, gaurko Araba'n ez baiña Burueba'n ibilli bait ziran.

Sarkalderago ote zegoan ba Gaztelueta ura? Amaya uriaren inguruan? Danadala, Arabitarrek Araba'ri Jotzen diotelako, —Araba'ri beti, beiñere ez Asturieta'ri—, zalantzetan ibiltzeke esan daiteke arabarrak izango zirala "Kile" edo Gaztelu aien gudari babesleak, eta, ondorioz, Euskalerra izango zala Gaztelueta ura.

Aragoi'ko Erreiñua eta Aragoi'ko Erromantzea Euskalerrairen altzoan sortu ziran bezala, Euskalerrairen altzoan sortu bait zan Gaztela'ko Konterria, eta, geroago, Euskalerrairen altzoan sortutako Konterri ura Euskalerrairen altzoan biurtu bait zan Erreiñu, eta Euskalerrairen altzoan jaio bait zan Erreiñu ortako Erromantzea ere: gaurr-egungo Gaztelera.

Itzuli gaitezen mozturik utzi dugun arira:

Arabitarrek Araba'ko eta Asturietako Laterri biak bata bestearengandik ederki bereizten zituzten bezala, ederki alkarrengandi bereizten zituzten Araba'ko eta Asturietako Laterri-Buruak ere:

Arabitarrek arabarrei, batzuetan, "Guaskuyin" esaten diete: "Guaskoyin", ots, "Waskoyak", "W" "GU" agoskatuz, eta "WASKO" itzari "IN" "YIN" ele semitarren atzizki ugaritasun adierazlea erantsiz. Beste batzuetan "Frank" izanen dute Araba'ko gure arbasoie emanen dieten izena. Agian, aro artako Araba Baskoni'ko Dukaterri aundiaren zati bat zalako:

Zanazala, 794'ean, bi gudarozte bidali zituan Kordoba'tik Emir Arabitarrek iparreruntz: bata Asturi'ren aurka, Abd-al-Malik buruzagiaren esanera. Bestea, Abd-al-Karim'en esanera, "Frakiarren lurraldera" Araba eta "Al Kile"en aurka.

Al-Nuwairy edestilariak dioskunez, arabarrek errez uxatu zutela dirudi Abd-al-Karim'en gudaroztea.

Alderantziz, larri ikusten zuan itxuraz bere burua Asturietako Errege Bisigotak, Al-Nuwary'k idatzi zigunez, Errege ura Baskoien Jaunari laguntza eskatu bearrean aurkitu bait zan.

Asturietako errege ura, II Alfontso zan.

794'ko borroka aien berri badamaigu Ibn-al-Athir izeneko beste edestilari batek ere. Ikus bere aitopena: "Bildu zituan Adbefons Erregeak bere guda-mutil guztiak, eta gaiñera, Baxconex'en Jaunari ere eskatu zion laguntza".

Dakusazunez, Jaun bat Asturietan. Beste Jaun bat Araba'n. Bi edestilari oiek adierazten diguten lez, bi Laterriak bezain ederki bereizten dituzten Arabi-

tarrek bi Laterri-Buruak: Agintari Nagusi yare bat, Asturietan. Beste Agintari nagusi yare bat, Araba'n."

Araba Laterri yare bat zala, ots, Araba Asturietako Erreiñuaren zoko bat ez zala, argi a;tortu ziguten Asturietako Bisigotek ere. Ala III Alfontso Asturietako Errege Bisigotaren "Kronika" k berak.

Kronika zar aiek ez dute uste on geiegirik merezi; kopi batetik bestera urteak-zear maiz aldatuak izan diralako, eta abertzalekeri txoroz anpaturik daudelako.

Ez dira gaiñera Euskaldunek idatziak. Atzerritarrek idatziak dira, eta, gaiñera, Euskaldunen etsai porrokatuak ziran atzerritarrek idatziak. Ez dezakegu, beraz, aiengandik losintxa aundiegirik jtxaron.

Orregaitik ainzuzen, oso-osoan sinista dezakegu batere kezkarik gabe, Euskaldunen alde esan dezaketen guztia: Adibidez, III Alfontso Asturietako Errege Bisigotiarren "Kronika" k Araba zar aren askatasuna ziurtatuz esaten digun au:

"Alaba namque, Bizcai, Alaone, et Urdunia a suis incolis reperiuntur semper, esse possessae, sicut Pampilona, Degius est, atque Berroza.

Euskeraz: "Alaba, bada, Bizki, Alaone, Degius eta Berroza, beti aurkitu dira bere biztanleen eskuetan".

So-egiegun unetxo batez kronika Bisigotak damaizkigun izen oiei:

BIZKAI. Orrela. Bai. "A"ri gabe. "A" ori artikuloa bait da. Orregaitik ez da inon esaten "Bizkaia'ko lurra", "Bizkaia'ra noa", "Bizkaia'tik" nator, "Bizkaia'koa naiz", edo "Bizkaiatarrak gera", "Bizkai'ko lurra" baizik, eta "Bizkai'ra goaz", "Bizkai'tik gatoz", "Bizkai'koa naiz", "Bizkai'tarrak gera".

"Frantzia" esatea "la Francia" esatea dan bezala, "Bizkaia" esatea ere "la Vizcaia" esatea izango litzake

ALAONE. Ez da erreza non zegoan asmatzea. Irakurri ere ez bait da berdin irakurria izan. Batzuek AIAONE irakurri dute, eta Araba'ren Ipar-Sarkaldeko AIALA izeneko arana zala, uste izan dute. Beste batzuek, ordea, Kronika'ko izen ori AIAONE irakurriz, Aragoi'ko IAKA (Jaka) uriaren inguruko lurraldea zala. Ez zaigu peitu, AZONIA irakurri dutenetatik, erri ura Errioxa'ko AZONIA edo ZIRONIA zala esan duanik ere.

Norbaitek, Arabitarren kronikek AL-ALAZON izeneko lurralde bat Araba'n

Ibero ibaiaren ertzean ipintzen dutelako ALAONE Araba'ko ERRIOXA izan zala dioskute.

Neri ordea, AL-úALAZON'ek, erderaz "El Alazón"ek, Zadorra-gora Araba'ko Zelaiaren atari diran ARGANZON'go KONTXAK esan oi zaien malkarrekin antza geiago duala iduritzen zait.

Beraz, bi izen oien alkarrekingo itxura gogoan aduz, eta ALAONE gaurregungo "La Puebla de Arganzón"en inguruan jarriz, Izen orren bidez arabiarrek TREBI'6O adierazi nai izatea agian badaitekean gauza dala esango nuke nik. Lurralde ori ez bait zan iñoiz ere Arabitarren menpean egon. Uste ori ordea, erdia baiño geiago ustela duan ustea izango .litzake arabitarrek dioten bezala lurralde ura Iber'ibaiaren ertzean zegoala egia ba'litz.

Iritxi ziran Argantzón'go Kontxaetara. Baiñan izugarria izan zan ain jaso zuten jipoia. Ain aundia ere! arabitarren kronikek esaten dutenez, an jasotako jipoi aren ondorioz, samintasunez il omen zan ba gudarozte aren buruzagia.

Ez zan ba edozein era artan ildako buruzagi ura! Alhakan Españi'ko Arabitarren Emir edo Jaun Nagusiaren anaia! Ezan nolanaikoa izango Araba'ri erasotzera bidalitako gudarozte ura, Alhakan'k bere anaia bera, Mu'awiya, buruzagi ipiñi zionean! Españi'ko musulmanek orduan zuten gudalbururik onena zala diote, ondamen artan mintzatzerakoan arabiar kronikalariek.

Arrazoi aundiz idatzi du B. Estornes Lasa'k bere zuzendaritzapeko Iztegian "Ocurrió esta gran derrota (de los musulmanes) entre los meses de Septiembre y Octubre de 801".

Zer billatzen ote zuten musulmanek, ia urtero-urtero Araba'ren aurka ain gogor ekiterakoan? Iru gauza, nere ustez:

—Lendabizi, Kantauri itxasora iristea.

Zertarako?

—Asturietako Erreiñu kristau Bisigota Europa'ko kristauditik zearo bereizteko.

—Euskalerriko kaiak - Lapurdum (Baiona) Oeaso (Ondarrabi eta Pasai), Morosgi (Urumea ibaiean, Ergobi?), Menosca (Getari?), Tritium Tuboricum (Astigarribi? Deba? Motriko?), Vesperies (Bermeo), Amanus Portus (Abando?), Flaviobrjga (Portugalete? Kastro Urdiales?), eta, aruntzago, Laredo.

—Euskalerriko kaiak artu, kai oietara beren ontzidia eraman, eta ontzidi oparo artaz baliaturik, Galietara sartu nai zuten Arabitarrek, "Gudu Done" baten bidez, Ala lagun, Kristaudi osoa menderatzeko gurariz.

Arabitarren guda-ontzidia, munduko bikaiñena zan, askoz, VII eta IX mende aietan. Ontzidi ura erabilli zezaketen gduetan bildurgarriak ziran Arabitarrek.

Ez ainbeste legorrez. Ejito ta Siri osoa ain errez artu ba'zituzten, lurralde

aietako jendeek, askatasuna Jotzen zutelakoan, besoak eta gazteluetako atepak pozik iriki zizkietelako izan zan.

Siri ta Ejito Inperio'ko bi probintzirik aurreratuenak eta aberatsenak ziralarik, gorroto zuten ba bertako jendeek Kostantinopla'ko Inperatoreen "zentralkeria", ots, "erdirakoikeria". Eta, erlijioz monofisitak izanik, ainbeste edo geiago gorrotatzen bait zuten Kostantinopla'ko Elizaren ortodoksia.

Baiñan Arabitarrek erri tinkoen aurrean aurkitu ziranean ez ziran aurrera urrats bat emateko gauza izan. Ala adibidez, Anatoli'ren mugetan, Inperio bizantziotarrarekin talka egin zutenean, edo Euskalerriarekin, emen, sarkaldean, edo Aitasantuen Erreñuarekin Itali'n.

Lotsagarri gelditzeko bildurrik gabe esan dezakegu Euskalerrriak salbatu zuala Europa'ren saietsik arriskugarriena: Euskaldunak, ots, Autrigoiak, Bardulitarrak, (Karistiarrak ez ziran Trebiño'tik aruntz luzatzen) eta Baskoiak izan bait ziran musulmanei Europare'n sarkaldeko ataka orobat itxi zietenak: Kristaudiaren sarkaldeko ataka! Kristaudiarentzat ill-edo-biziko atakarik garrantzitsuena!

Ori munduak ez daki. Euskaldunek ez bait zuten bere ekintzei-buruz deus idatzi. Garai artako edestilari kristauak, ia danak, frankiarrak izan bait ziran: edestilari arrotzak, abertzalekeriz beteak, eta, guzti ortaz gainera, -Euskaldunen etsai amorratuak!

DEGIUS: Non zegoan? Ez da erreza galde orri erantzun eskierrik ematea. Iritzia norena dan esateke, B.Estornes Lasa'ren zuzendaritzapeko Iztegiak, Ega ibaia Ibero'ra sartzen dan tokian zegoala, diosku. An, gaurr-egun San Adrian izeneko erria dago, eta Lizarra ta San Adrian'en artean, Ega'ren ibarreko erririk aundiena Lerin dugu, agian an egonen zan DEJIO'ren uriburua.

Danadala, izan zuten kemenik aski lurralde artako Baskoiek. Izan bait ziran Arabitarrei Ibero ibaiaren eriza ber-berean eusteko gai! Ta baleike Dejio an egon izatea, an zegoalarik iparrea Berroza'rekin eginen bait zuan muga.

BERROZA: Gaur Berrueza. Au bai, au toki ezaguna da. Napparroaren soraldean, Araba'ren saietsean dago. Ega'ren ibarreko Antzin eta Urantzi (Los Arkos)'en arteko lurraldea dugu Berroza.

URDUNIA: Orain, ORDUNIA izango litzake, "NI" oiek "Y" bait ziran aro aieta-ko idazkeran. Bi izen oietan -"Orduña" "Urduña"- zein ote dan zarragoa? Ñere ustez "Orduña", nekerik txikienaren araura "O" Euskeraz eta beste edozein elez, erriko jendeen ezpainenetan "U" oso errez biurtzen dan bezala, "U" ez bait da ain errez "O" biurtzen.

Baiñan Araba'ren yaretasunaz ari giñan mintzatzen, eta arrazoi batzuk ere eman genituan Araba'ren askatasun osoaren alde.

Askatasun ori Arabitarrek ederki ezaguna zutela, esan dugu, eta III Alfontso Asturitar Errege bisigotak ere aitortzen duala bere "Kronika"n. Ona, orain beste arrazoi batzuk geiago, "Kronika" beretik artuak:

— II Alfontso'k Asturietako buruntza jantzi zuanean, iraultza batetik igesi, Asturietatik erbestera joan bearrean aurkitu zan.

Erbeste ori, ordea, zer erbeste izan zan?

Araba!

Entzun esku artean darabilkigun "Kronika"ri: "Qui fugiens Adefonsus Alaban petiit" propinquisque matris suae se contulit, "Alfontso'k igesi, Araba'ra jo zuan, eta bere amaren aideen artean aurkitu zuan babes", "Rotense" izeneko idazkeran, eta " A regno deiectus apud propinquos matris suae in Alabam commoratus est": "Erregetzatik jaurtia, bere amaren aideen artean Araba'n bizitu zan", diosku "Evidencia" esaten zaionak.

— Badugu politikaren aldetik ere, Araba Asterako Bisigoten mendeko beiñere izan ez zala ziurtatzen digun beste arrazoi bat:

Asturietako Errege Bisigoten eginkizunik garrantzitsuena, beren Erreiñuaren jaurketari zegozkionetan, Konteen izendaketa izan zan. Konteak Erreiñuko "probintzien" jaurle izan oi ziran, eta bakoitza bere konterriko auzien epaille eta gudarozteen buruzagi. Konte aien izendaketa zan Erregeen agintaritzza nagusiaren ezaugarririk nabarmenena.

Orra ba: Asturietako Errege Bisigotek ez zuten sekulan Araba'ko konte bat izendatu. Aregutxiago, jakiña, Toledo'ko Errege Bisigotek.

III Alfontso'ren "Kronika"z baliatzen gabilta. Izan zituan Errege onek ere Euskaldunekin iskanbillak: "Vasconum feritatem bis cum exercitu suo contrivit atque humiliavit", diosku Albelda'ko "Kronika"k: "Bi aldiz zigortu ta menderatu zuan bere gudaroztearekin Euskaldunen ankerkeria".

"Domuit Vascones", ostera.

Asturitarrek ez zuten beiñere Araba'ren barruan gertatzen zanik jakin. Ez zuten Araba'ko barne-eraketarik ezagutu. Borrokaldi batean, katigu artu zuten Arabarren buruzagia. Zer agintari-mota ote zan buruzagi ura? Ez eiezu ori Asturitarrei galdetu. Ez dizute erantzun ziurrik emango. Ez dakite. Soilki, Arabarren Kontea zirudila erantzungo dizute: "qui videbatur comes eorum", dioskute kronikék; "Aien kontea zirudiana". Zirudiana! Baiña benetan ala zan edo ez, ori, kronikalariek ez zekiten gauza da.

Baiñan..., Araba beti yare eta bere buruaren jabe izan ba'zan, eta Asturieta-

ko Errege Bisigotek ez ba'zuten sekula santan Araba'n agindu, zer-zala-ta ibilli ote zan Asturjetako Errege Bisigotiar ura Araba'ko lurretan gotzaigo bat sortzen eta gotzaigo artarako gotzai bat izendatzen. Ez ote zan ba Gobiaran Araba'ko lurra IX mendean? Ñolabait Aran polit ura, Asturietako Erreiñuaren mendean ote zegoan?

Ori da, —nola ez?— españizale guztien aburua.

Bai noskj, Asturietako Erregeak, Bisigotak ziralarik, beren zaiñetako odolean urturik bait zeramaten Euskalerrria menderatzeko gurari gotorra, baleike bein edo bein Gobiaran aien mendera jausi izatea.

Alare Balpuesta'ko gotzaitzaren sorkundeak badu beste azalpen-bide bat: Il Alfontso Erregearen nortasun bereizia: Errege ura, Bisigota aiña bait zan Euskalduna. Emakume Euskaldun baten semea.

Eta oso errez izan bait zitekean emakume ura Gobiaran'go alaba, baleike aren semeak, Il Alfontso Asturietako Erregeak, gotzaigo ura bere lurretan, ots, ondarez bere amagandik etorriak zituan lurretan sortu izatea.

Ortarako, jakiña, bearrezkoa litzake bere ama ura sendi aberatseko alaba izatea. Bañian IX mendeko Araba'n jende aberatsak eta baita oso aberatsak ere bazirala, Kukulla'ko larrukiak aztertzean ikusi aal izan dugu. Orai, adibidez, Bibere gotzaiaren sendia. Bestalde, Erregiña izatera iritxi aal izateko, Muña'k, neska polita jzateaz gaiñera, beste zerbait geiago izatea, ots, sendi aundiki aberats baten alaba txukuna ta ederki ezia izatea ere ba'leikean gauza da noski.

Ikus dezagun, orain arte ere lagun izan zaigun "Kronika"ren eskutjk, nola gertatu ziran gauzak.

759'garren urtea. I Fruela da Asturietako Errege Bisigota. Urte ortan ainzuzen eseri zan Errege-aulki artan. "Baskoiak jeiki omen zitzaizkion aurka, eta Baskoi iraultzalari aiek menderatzera etorri omen zan Euskalerrira: "Vascones rebellantes superaujt atque edomuit": "iraultzan jeikitako Baskoiak garaitu ta menderatu zituan".

Iraultzan jeikitako Baskoiak? Noiz izan ote ziran Baskoi oiek Asturietako uztarrira lotuak? I Alfontso zeritzan —eta Fruela onen aita izan zan— Erregetzakoan?

I Alfontso ori, otsoak erail zuan Fafila'ren erregetza laburra zenbatzeke, Asturietako irugarren Errege Bisigota zan. Ongi bizirik zeukan beraz, erraietan, Euskaldunen aurkako gorrotoa.

739'an artu zuan buruntza eta Autrigoiien lurretan genuan 743'an, arrapa-

tzen zuan guztia txikitzen. "Vi magnae virtutis", "kemen aundiko gizona", izan ornen zan, eta "Kepa buruzagiaren semea, Leobigildo eta Rekaredo erregeen odolekoa": "Filius Petri ducis ex semine Leuuigildi et Reccaredi regun progenitus". Eta, bera ere, "Egika eta Bitiza Errege zirala, gudaroztearen buruzagi nagusia": "Tempore Egicanis et Vitizanis, princeps militiae fuit". Guzi ori jakiñik, ez dugu noski zertaz arritu Errege onen lenen eginkizuna Euskaldunak menderatzera etortzea izan zala jakiten ba'dugu.

Menderaketa orren ondorioz jeiki ote ziran aren semearen aurka Euskaldunak?

Baiña I Alfontso'k ez zuan ez iñor ez ezer menderatu. Gaztelu eta uri bazuk artu, txikitu, erraustu, beste alde batera joan, an beste orrenbeste egin, eta, azkenean bere Erreñura biurtu besterik ez bait zuan egin.

Gaiñera, I Alfontso ori, Autrigoen lurretan eta une berean Galizi'n, eta Portugal'en ere oso barruraino sarturik ibilli bait zan "Kronika"k dionez, ekintza zabalegia eta garaitza-pillo aundiegia dirudi guzti orrek, bi urteko udaldietan —743'tik 745'ra— egiña izateko.

Ez dezagun aztu, garai artako idazkiek konfiantza aundirik ez dutela merezi.

Dana dala, I Fruela bere semeak, menderatu ornen zituan Euskaldunak: "Vascones rebelantes superauit atque edomuit". Orra or Toledo'ko Errege Bisigotei-buruz esan oi zana, Asturjetako Errege Bisigoten omenez birr-esana: "Domuit Vascones".

Baiñan, naiz seguruaski ori, luzarorako belntzat, egin ez, beste zerbait geiago egin zuan beintzat Fruela'k orduan:

— 759'an Tiron ibaiaren ertzeko Pedroso'n zegoan I Fruela Errege Bisigota, Kukulla'ko Donemillian'en lekaidetxeko larruki batek dioskunez. Pedroso'ko ori da gure larrukirik zarrena. Aldizkari ontan aztertu genduana. Bertan lekaimetxe baten sorkuntza agertzen da. Lekaimetxe artako emakume aien izenak, bazuk, Maria adibidez, kristaudi osoan erabilli oi diran izenak dira. Beste bazuek, ordea, Euskal-itxura nabarmena dutenak.

Larruki artan esaten dana sendotzeko, Fruela'ren izenpena dator. Egiazkoa ote da izenpen ori, edo geroago, Kukulla'ko larrukiek izan dituzten berr-idazketa ugarietako batean erantsia? Aldaketa, mozketa eta erasketa asko izan dituztelako ez bait dira larruki aiek oso fidagarriak.

Entzun larruki oiek ongien aztertu dituan Ubieto Arteta Balentziar-Unibertsi-tateko irakasleak bere liburuaren itzurretan damaizkigun itz auek: "He insistido reiteradamente que la documentación de San Millán de la Cogolla contiene abundantes falsificaciones sobre todo entre los textos más antiguos". (Azpimarraketa nerea). Gauza bera esan daiteke beste dokumentu zarretatik geienei-buruz ere.

Bestalde, Fruela, Fafila kontuan artzeke, Asturietako irugarren Errege Bisi-

gota zan. Bizirik zegoan oraindik Euskaldun eta Bisigoten arteko aierkundera, eta, geiago dana, Fruela bera Euskaldunak borrokatzen eta, Euskaldunen etsaia izan zan, eta I Alfontso Euskaldunen etsaiaren semea zan.

Eta, une artan lurralde aietan aurkitzen ba'zan ere, Euskaldunak menderatzen ta zigortzen eta zalarik, zer-zala-ta ari bear zuan lekaime Euskaldun batzuen dokumentuan atzaparra sartzen.

Bildurrez lekaime euskaldun aiek utzi ote zioten ori egiten? Etsai bildurgarria zuten ba Errege ura, eta Errege etsai batekin asarretzerik ez bait zitzairen konbeni.

Edota, zer-gerta-ere, Errege baten adiskide-ta, agian noizbait ederki etorri zezaiekeala pentsatu ote zuten? Trebeak bai-t dira lekaimeak orrelako jokueta-rako.

Guzti ori baiño zerbait garrantzitsuagoa ere egin zuan Fruela Errege Bisigotak Euskalerrian:

Ezkondur.

Ona emen gertakizun erromantikoi aien aria:

Guda amaiturik, garai artan —eta noiz ez?— oiturazkoa zan bezala, eraman zuan Fruela'k jende-sail-bat Asturietara baiturik. Aien artean, neska gazte bat, mirabetzarako, jakiña, baiñan ederra ta polita izaki neska-ta, arekin ezkontzea erabaki zuan, eta ezkontza ortatik jaio zitzaion II Alfontso Erregea izanen zan semea.

Ikus, ori dana, "Kronika"ren itzetan:

"Muniam quamdam adolescentulan ex Vascoanum praeda sibi seruari praecipiens, postea eam in regali coniugio copulavit, ex quam filium Adefonsum suscepit": "Baskoiei artutako baituetatik, bat, Muña izeneko neskatilla, bereztat gordetzeko agindu zuan, eta neskatill arekin Errege-ezkontzan alkartu zan; neskatill arengandik jaio zitzaion Alfontso semea" ("Ovetense" idazkera).

Laburrago mintzatzen zaigu "Rotense" esaten zaiona: "Uxoremque sibi, Muniam nomine, exinde unde et filium Adefonsum genuit": "Muña izeneko emazte bat artu zuan, eta aren bitartez Alfonso semea sortu".

Orra nola Euskalerriko neskato bat Erregin billakatu zan!

Nongoa ote zan bera? Baskoia esaten dio "Kronika"k, baiñan aspaldiz gero esaten zitzairen "Bascones" Euskaldun guztiei. Badakigu gaiñera Araba'koa zala, "Kronika"k berak dioskunez:

I Alfontso, Muña'ren semea, Asturietatik "igesi joan bear izan zuanean, babes-billa Araba'ra bere amaren aideengana joan zala" bait diosku. Entzun ori lateraz: "qui fugiens Adefonusus Alabam petiit, propinquisque matris suae

se contulit" ("Rotense" k), eta "Erreiñutik jaurtia izan zanean, Araba'n bere amaren aideen artean bizitu zala", "Ovetense" k.

Arabarra zan beraz Muña erregiña: Arabarra bai, baiñan nongoa? Autri-goien lurraldekoa ezpairik gabe, an ibilli bait zan Fruela, eta Fruela'ren aurretik I Alfontso bere aita. Eta, baleiken gauza da Gobiaran'goa izatea ere, Gobiaran Araba'ren azken/sarkaldean aurkitzen bait da.

Orregaitik diot, I Alfontso agian bere lurraldean ari izan zala Balpuesta'ko gotzaigoa sortu zuanean.

Ori adierazi nai duala dirudi, Erregeak, Gotzaigo berriari egiten zaizkion emaitzen berri ematerakoan, "bere mendiak" aipatzeko darabilkian erak: "ligna de montibus meis", "nere mendietako egurra", "licentiam pascendi per omnes montes meos", "nere mendi guztietan bazkatzeko baimena"...

Egia, Erregeek badutela bere Erreiñuko ondasun guztiei "nere", esateko oitura, baiñan oitura ori geroagokoa dala esango nuke nik, Bisigoten aroko Erregeen oldozkerari dagokion gauza ez dala, eta are gutxiago Eusko-oldozkerari. Ez dezagun aantzi, Gobiaran'ek, naiz noizbeinka Asturietako Errege Bisigoten esanera egon, Euskalerrri izaten jarraitzen zuala.

Gaiñera, Erregeak beste emaitzetatik ederki bereizten zituala dirudi. Bestalde, II Alfontso Erregeak, larruki artan beste emaitzak aipatzerakoan, emaitza guzti aietatik "bere" mendiak ederki bereizten zituala dirudi.

Eta, ortaz gaiñera, Elizbarruti berri ari egiten zitzaizkion opariak zenbatzerakoan, "nere" mendiak esatean, "NERE" orren bidez, Alfontso'k, larruki artan, mugaketarik gabe bere Erreiñuko guztiko edozein mendi ta zer-nai baso adierazi nai izatea... ez al litzake zentzurik ez lukean gauza izango?.

Bukatu dut, bearrezkoa uste izan dedan "sarrera" labur auxe. Datorren zenbakian, etorria izango dugu, Balpuesta'ko dokumentuak aztertzen asteko garaia.

Latiegi'tar Bixente



EUSKARA TA ERROMATARRAK

Ezin uka emen dugun gaia aberatsa dela, gainera maita askotakoa: izkuntza, edestia, artilana, sinismena ta abar.

Euskaldunei buruz, aspalditik, orduko berriak, gure aldetik jakin naian genbillen. Ortaz mintzatuz, noizbait, liburu zar ezagunen bat agertuko zelakoan geunden. Zerbaiten susmurroa iritsi zitzaigun belarrira. Baita itxaropena, utsa galanta biurtu. Bide bat oraingoz itxi zaigu, baiño baita beste berria irikj.

Ara emen gure ikerketaren xeetasunak.

"VASCONES" TARRAK ETA ERROMATARRAK

Euskaldunei buruz, Erromatar zarren aldetik albiste labur laburrak dauzka: Julio Caesar (De Bello Gallico), Cayo Terencio (Antiquitates), Estrabon (Geografia), Tito Livio (Decadas), Caius Salustius (Historia), Apiano (Historia), Suetonio (Augusto).

Berri labur oietan, CALAGURRIS, "VASCONES" en iria deitzen dute. Ortzen esaten zaigu ere, IRUÑA'RI, izen berria "POMPAELO" emon zion Ponpeio'k. Ortik sartu zen PAMPLONA izena.

Sertorio'kin Erromatarrak gudan zebiltzatela CALAGURRIS iria era bat suntsitu zuten (72 urtea XTO aurretik). Julio Caesar'ek iri ori bera lurretik eraiki zuen berriz (55 urtea XTO aurretik), baita bere izena eman: "CALAGURRIS JULIA NASSICA".

Lurralde oietik barrena, Kantauri'tarrak menderatu naian, Caesar Augusto, agintari aundia ibilli zen.

Naiz gizon aundiak Euskalerrri'ko inguruetan egon, ezagutzen ditugun paper zarrak ezer guti mintzo zaizkigu orduko gure irietaz. Ekintza galantak euki zituzten, bai gizon ospetsuenak, baiñan oso berri gutxi idatzirik utzi dizkigute.

Gaiñera ezagutzen ditugu Erromatarak utzi zizkiguten aztarna ederrak gure etxe ondoan: iriak, zurubiak, kaiak, galtzarak, gure izkuntzan aztarna nabarmenak, zigagiroa, sinismena eta danez gain latīña izkuntza.

Erromatarak, gure artean, ainbeste gizaldi egon zirelarik, gutaz berrĳ geiago utziko zutelakoan nengoen beti. Zerbaiten susmurroa euki nuen bein. Ez dakit nungo aizeak esan zidan, Julio Caesar'ek "DE BELLO GALLICO" liburuaren antzekoa Espāñi'ko gudari buruz, beste libururen bat ba zeukala idatzia. Julio Caesar, Euskalerrria'n guda izana zelarik, nere baitan orduko gure lurraldeak aipatuko zituelakoan, nolabait etsitua nengoen. Noizbait asi nintzen aztarnen billa.

"DE BELLO HISPANIENSI"

Madrid'en, Iruña'n, Donostia'n eta abar, jakintsueĳ eta liburu dendetan, Espāñia'ko gudari buruz Julio Caesar'ek idatzitako liburuetaz galdetzen nien, eten gabe. Espāñia'n erantzunik gabe gelditzen nintzen. Ez zekiten yeus.

Paris'era ere joan nintzen, irakorla berexietara, liburuaren billa. An esan zidaten: "liburu ori ba dago latīñez, baiñan ez dugu oraindik frantsesez itzuli". "Itzultzekotan gaude, bere eguna ez zaio oraindik etorri", jarraitu zuen. "Goazen ikustera ingleseiz itzulia ote dagoen", aipatu zuen azkenean. Asi zen billa, baiĳa arkitu ere. Eman zidan irakorlaren zuzenbidea: "Loeb Classical Library (London, William Heinemann Ltd-Harvard University Press, Cambridge, Massachusetts).

Eskatu nuen liburua, baita bidali ere latinez eta ingleseiz. Oso garestia atera zitzaidan. Ezin billatu nuena espāñolez eta frantzesez, ingleseiz neukan begi aurrean.

Ala esaten du aurreneko orrialdeak ingleseiz: "Caesar, Alexandrian, African and Spanish Wars". Latin izkuntzatik itzultzailea A.g. Way, M.A. jauna dugu, Londres'ko ikastetxe nagusiko irakaslea. Nere ale au 1988'garren urtekoa da (laugarren argitaraldia), inglaterra'n egiña. Latīñez liburuaren izena auxe da: "DE, BELLO HISPANIENSI".

Liburua eskuetan artuta irentsi nuen berealaxe, baita ostiko ederra jaso ere. Espāñia'ko gudari buruz mintzo dela, ez du itz bat esaten lpar aldeko lurretaz. Gogoan, Egoaldeko borrokak ditu bakarrik. Euskalerrria'ri buruz itz bat ez. Ondo irakurrita daukat dena bizpairu aldiz.

Liburuaren mamiari buruz, zerbait esan bearra dugu: Caesar'ek Pompeĳo'ren semearen aurka guda dabilki Espāñia'ko Egoaldean, gaur Andaluzia izenarekin ezagutzen dugun lurraldean. Orduan Baetica zeukan izena. Or gaiñera zati txiki batean, lpar aldera.

Liburu ori, itzultzaileak dionez, latīñez idatzitako liburu guztietan txarrena ta zatarrena da. Caesar'en lana bezala naiz agertu, ezin diteke berea izan, beste goimaileko guda mutillena baizik. Caesar'ek, nunbait, paper ioen gaiñean eskua jartzeko astirik ez zuen izan. Caesar'ek luma egokia zeukan idazteko, benetan guztiz ona. Gure idazki onetan berriz, ezin diteke uler askotan itz, esaldi ta joskera ugari. Seireun utsuna ornen. Itzultzaileak osatu dituzte berirz,

baita asmatu nolakoak bear lituzketen izan esaldi mordo ederrak. Ori ez zen beinere gertatu Caesarien idazlanarekin. Dena dela, "DE BELLO HISPANIENSI" liburuak berriak ematen ditu ta ez da gutxi.

Naiz asieran, Euskalerrri'ko berrien billa ibilli ta liburu onek ezer ez ekarri, beste zerbait arkitu dugu garrantzi aundikoa, gure ustez. Caesar'ek, gaurko Andaluzia'ren Iparraldean iri batzuek menperatzen ditu. Arritzekoa dena, iri geienak euskal kutsuzko izenak dituztela. Lendabizi ori agertu nai dugu ta gero euskarari buruz, jakintza laguntzen duen izkuntza bezala arturik, oar batzuek egin.

EUSKAL IZENAK OTE EGOALDEAN?

Iri batzuen izenak aipatzen dituzte liburu ortan. Ia denak mendaldean daude, toki malkarretan, naiko onak gizasemeak gudan babesteko. Ponpeio'n alde daude ta Caesar berberak menderatzen ditu. 46'garren urtean Krjsto'ren aurretik gertatzen da ori dena, Udazkenean.

Izen oiek agertzen diren eran aipatzen ditugu. Ondoan Euskalerrri'ko izen berdiñak edo antzekoak ipjiñiko ditugu. Nun arkitu ditugun esango dugu.

Asi gaitezen ikerketaren lanean:

ULIA (bi aldiz agertzen da)

ULI ALTO	(Arzibar'ko errixka- Geografía General del País vasco navarro, Francisco Carreras y Cardí, Provincia de Navarra. T II, 339. or.).
ULI BAJO	(Longida'ko errixka-Geograf. General, T. II, 426 or.).
ULIA	(Donosti'ko mendia Gipuzkoa'n, Lopez Mendiz. Etimologías de Apellidos Vascos - Buenos Aires, 1958, 199 or.).
ULI-ZAR	(Araba'n Lopez Mendizabal, Etimologías).
ULI-BARRI	(Araba'n, Lopez Mendizabal, Etimologías).
ULIZ-ARANA	(Errioxa, Lopez Mendizabal, Etimologías).
ULI	("Garoa", Lopez Mendizabal, Etimologías).
ULI-ARTE	(Koldo Mitxelena - Apellidos Vascos, Txertoa, Donosti, 1989).

ATEGUA (iru aldiz agertzen da)

ATE	(Naparroa'n, Fr. Eusebio de Echalar, Geogr. General del País Vasco Navarro, T. II, 1050-1099 or.).
ATALLO	(dem).
ATONDO	(dem).
ATEGI	(Naparroan, Lopez Mendizabal).
ATA	(dem).
ATEZ	(dem).
ATAURI	(dem).
ATE-KUA	(dem).
LATAGUA	(J.A. Gonzalez Salazar - Toponimia Alavesa, T. II, 53 or.).
ATAU	(San Erroman'en ondoan, Gonzalez Salazar, T. III, 125 or.).
ATABEA	(Gonz. Salazar, T. II, p. 25).
ATAZABAL	(La Puebla de Arganzon, Lopez Guereño, 540 or.).
ATIEGA	(Salinas ondoan - Lopez Guereño, 620 or.).

SALSUM (bost aldiz agertzen da; ibaia da).

SALSOLO (Lopez Mendizabal).

ISASONDO (idem).

IZAI 7U (idem).

ZALDUNBIDE (idem).

ISASA (Arnedo'n, Antonio Gonzalez Blando, Toponimia de la Rioja, 280 or.).

SASO-MENDI (Ali inguruan, Lopez de Guereño, Toponimia Alavesa, 429 or.).

(OARRA: "IZAI 7U" itzaren antza aundia dauka otsez, naiz bestela idatzia izan).

UCUBI (bost aldiz agertzen da).

URUBI (Saraso'n Araba'n - J.A. Gonzalez Salazar, Cuadernos de Toponimia, T. I, 63 or.).

OCON (Bernedo'n, Gonzalez Salazar, T. II, 91 or.).

OCABIDE (Domaikia'n, Gonzalez Salazar).

— OBI (Laminaria'n, Gonzalez Salazar, T. II, 25 or.).

— ELOBI (Gonzalez Salazar, T. II, 41 or.).

UCUBRIA (Anguiano'n, A. Gonzalez Blanco, Toponimia Actual de la Rioja).

URSAO (iru aldiz agertzen da)

URSUA (Eusebio de Echalar, Nombres Toponimicos Vascos, 1067 or.).

UBAO (idem, 1090 or.).

URZA (idem, 1095 or.).

URZANTE (Naparroa'n, Lopez Mendizabal, Apellidos Vascos).

USAOLA (Bizkaia'n, idem).

USA (Gipuzkoa'n, idem).

ORRAO (Araba'n, idem).

UZA (Sasia).

(UR-ZAR)

URSALTA (Eskarai ondoan, Gonzalez Blanco, Toponimia de la Rioja, 563 or.).

URSOBIA (idem, 563 or.).

URZO (Koldo Mitxelena, Apellidos Vascos).

URSOLO (Monasterio guren ondoan - Lopez de Guereño, Toponimia Alavesa, 492 or.).

SORIKARIA (bi aldiz agertzen da)

SORABIA (Eskarai ondoan, Gonzalez Blanco, Toponimia de la Rioja, 529 or.).

SORIASOLOA (Gobeo'n, Lopez de Guereño, Toponimia Alavesa, 456 or.).

SORIASPE (Alecha ondoan, idem).

(OARRA: Itz au, otsez, "TXORIKABI" euskal itzarekin antza aundia dauka, baita SOROGARRIA itzaren antza).

MUNDA (lau aldiz agertzen da)

MUNDAKA (Bizkai'ko erria - Lopez Mendizabal).

MUNDATE (Idem).

MUNDA (Abel bazkagi).

MUNDARRA (Lasarte ondoan Araba'n - Lope de Guereño, 353 or.).

ASPAVIA (bein aipatua)

AXPE, ASPE, AZPE (Eusebio de Echalar, 1071 or.).

SASPE (Idem).

ASPA (Muñoa Villoslada inguruan, Gonzalez Blanzo, Toponimia Actual de la Rioja, 67 or.).

ASPEDIO (Zarraton mendian, idem, 67 or.).

ASPARUBEA (Ullibarri-Goiko soroa - Lopez de Guereño, Toponimia Alavesa, 84 or.).

(OARRA: "AIZPE BIAN" itzaren kutsu aundia dauka).

VENTIPO (bein aipatua)

(OARRA: Itz au zailena izan da, euskal izenekin neurtzen. Onen antzekorik ezer gutxi b;llatu dugu. Aipatutako idazle eta ikerlariak ez digute itz onen aztarnik eman).

VENTIZUELAS (Gonzalez Blanco - Toponimia de la Rioja, 595 or.).

BENITUA (Koldo Mitxelena, Apellidos Vascos, 153 or.).

-TIPULAZ (Bertizarana'ko auzoa - Idem, 79 or.).

Naiz orain dela bi mila urteko itzak izan, ikusten dugunez, itz batzuek gaur dauzkagun izenen berdinak dire. Besteak berriz, euskal izenen erroak dituzte, den denak bat ezik. Orregatik izen oiek euskal kulturaren aztarnak agertzen dizkigute; gure erroen antzekoak dire. Ori dena, gaurko Euskalerrit'ik ain urruti arkitzen direnak.

Gaiñera, aipatutako liburu onek, "DE BELLO HISPANIENSI" delakoak, beste berri bat ematen digu: esandako irietan bizi diren gizasemeak ez dire Erromatarrak. Zazpi aldiz "vernacula legio-vernaculis legionariis-vernacula milites duo-ex legione vernacula-" itzak erabiltzen ditu. Latiñez ez zirela mintzatzen, beste izkuntza batean baizik, esan nai du orrek. Latiñez mintzatzen ez zirelako, basatiak deitzen zituzten ("propter barbarorum"). Bertako izkuntza orren izenik ez du ematen.

Ikusi ditugun erro guzti oiengatik, euskal sendiaren izkuntzen adar bat d;rela, esango genuke. Orrekin ez dugu esan nai gaurko gure euskara mintzatzen zutenik, gure izkuntzaren kimu berexi bat zirela baizik. Gure izkuntzaren zugaitzatik ateratako adar berexi bat daukagu, Erromatarren aurretik lurralde oietan eratua zegoen izkuntza, Espaiñi'ko Egoaldean, geroztik il dena eta emen, gure artean, oraindik bizirik daukaguna.

Orko izkuntza ori ez dago bizirik gaur, aztarna batzuek gelditzen zaizkigu

bizpauru paper zarren izenetan. Izkuntza orren enborra berriz osasuntsua dago, gaur gure artean. Bizirik dagoen zugaitz oneri esker, izen zar oiek biziduneen kutsua artzen dute, illuntasuna gallenduz. Bide ortatik joango da biar ikerketaren lana.

EUSKARA ASPALDIKO JAKINTZAREN BERRIEMAILLEA

Ez bakarrik ikertutako izen oietan, baita beste toki askotan dauzkagu euskal itzen aztarnak. Aspalditik asita oartu ziren ortaz jakintsuak. Ikus zer dion ortaz orain dela berreunta bederatzi urte M. de Labastide jaunak, "DISSERTATION SUR LES BASQUES" delako liburuan, Paris'en 1786'garren urtean argitaratua. Loire delako ibairano erri izen askotan euskal sustraiak arkitzen ditu, batez ere Dordogne ta Garone ibaien artean, baita bereziki Gazkuña'ko lurraldetan.

Beste orrenbeste esan dezakegu, Auñamendi'ko Mailloen bi alderdietako izenetaz: "Aspe, Laruns, Ossau, Belar, Basa" eta abar. Ortaz lan onak egin dituzte Maluquer, Rolfs, Corominas eta beste askok.

Orrekin ikusten dugu euskal izkuntzaren sendiak oso eratuak zeudela urrutirano gaurko Euskalerra'tik, jakiña aspaldiko gizaldietan. Euskararen adarrak ortxen zeuden gaurko lurraldeetan eta beste lurralde zabaletan, Erroma'tarren aurretik, baita Ibero ta Kelta delakoen aurretik. Euskararen aztarnak beste erri guztien aurretik zeuden ezarriak. Ori esan bearra, naiz askok ezin ikusi ori ta jakin nai ez.

Erroma'tarrentzat orixe ziren euskaldunak: "barbarorum", basatiak, mendikoak, ezjakiñak, erri xoilak, ankazpian zeuzkatenak, beko mailekoak "vulgus". Kultura zuten gizonen aurrean ez zegoen beste izenik.

Erroma'tarren atzetik, España'tarrek auxe erakutsi die beti: España'ko aurreneko gizonak Ibero ta Kelta'tarrak zirela. Gezurra borobilla. Ortxen giñen eta gaude danen aurretik. Gorrotoa digute. Ezin airtortu egia. Ba da gauza au aldatzeko garaia.

Beste orrenbeste gertattzen da Frantzia'n. Ikastetxean Kelta'tarrak direla aurreneko gizonak erakusten diete aurrei (Nos ancetres les Gaulois). Gezurra. Oien aurretik, aspaldi antxen giñen gu. Ta ori ez dute ikusten ta ez ikusi nai. Nolanai erabiltzen dituzte kulturaren bideak.

Europa'ko izkuntzarik zarrena, euskara dugu zalantzarik gabe ta ozenki, denen aurrean aitortu bearra. Ez ori bakarrik: gure euskarak aspaldiko gizonen berriak ematen dizkigu, batez ere izkuntza sorreraren aztarnak, baita aintziñako asmatzeko mailak nolakoak ziren jakiteko jokaera berexia eta abar.

EUSKARAREN BEARRA

Euskara, gaur, jakintzaren giltza bat da, nañtanaiez bearrezkoa IBERO, IBERO AURREKO, AKITANIA, AUÑAMENDI (PIRENAISTAK) jakintzazaleentzat.

Euskararik gabe ezin diteke Ibero, Ibero aurreko, Akitania, Auñamendi za-
leen jakintzak bear bezala landu. Euskararik gabeko Iberoza-leak, Pre-Iberoza-
leak, Akitaniaza-leak, Auñamendi jakintza-leak oker dabiltz. Euskara ondo
erabiltzea zuzentasunak agintzen duen baldintza da. Zuzen, egoki, ondo iker-
tzeko, aldeaz, euskara ondo ikasi bearrezkoa da. Euskararik gabe motz geldi-
tzen dire, gai ojetaz lantzen ari diren jakintsuak. Ezin dugu ulertu nola azaldu
leiken norbait Iberoza-le on bat bezala, euskararik jakin gabe. Argitasunik ez
dulako, izarrik ikusi gabe geldituko da.

Aintzina garaiko aztarna zarrak ikertzeko argi berexia ematen digu euska-
rak. Ba da ori aġortzeko garaia ozenki ta oiuka.

LATXAGA

LIBURU-ZERRENDA (BIBLIOGRAFIA)

Ikertutako Liburua:

CAESAR-DE BELLO HISPANIENSI (Spanish Wars-Loeb Classical Library-
Translated by A.G. Way, M.A. Harvad University Press, London 1988).

Erabilitako Liburuak.

Urteari begira zuzenduak izango dire:

M. DE LABASTIDE, Commentaires de Caesar-Partie deuxieme-Dissertation
sur les Basques, Paris 1786.

FRAY EUSEBIO DE ECHALAR, Disertación sobre el análisis e interpreta-
ción de los nombres toponímicos vascos, Geografía General del País Vasco-
Navarro, Francisco Carreras y Cardí, Provincia de Navarra, T. II, pp. 1050-
1099, Barcelona (urterik gabe).

ISAAC LOPEZ MENDIZABAL, Etimologías de Apellidos Vascos, Buenos
Aires 1958.

BERNARDO ESTORNES LASA, Enciclopedia General Ilustrada del País
Vasco, Historia General de Euskalerría, Invasión Romana, Auñamendi, San
Sebastián 1978, pp. 91-125.

JOSE ANTONIO GONZALEZ SALAZAR, Cuadernos de Toponimia Alavesa,
Gazteiz 1985.

ANTONIO GONZALEZ BLANCO, Diccionario de Toponimia Actual de la
Rioja, Murcia 1987.

GERARDO LOPEZ DE GUEREÑO, Toponimia Alavesa, Gazteiz 1989.

KOLDO MICHELENA, Apellidos Vascos, Txertoa, Donostia 1989.



BIZKAIKO FORUAREN EUSKERAZKO LEEN ITZULPENA

I.- BIZKAIKO FORUA GAZTELERA UTSF7.

Urte asko-asko ez da eta jakingarritxo auxe irakurri neban aldizkari baten: "Bizkai Jaurerriko Batzarre Nagusiak erabaki zuten... euskeraz idatzirik ekarri zezatela aurreko billerako agiriaren laburpena. Erabaki au, nonbait, Abandon bizi zan arabar baten eragiñez edo artua izan zan: Jose Paulo Ulibarriko Galindez-en eragiñez, alegia" (ARANZAZU, azaroa, 1985, 7 orr.).

Erdi zurtz eginda gelditu nintzan orrelakorik ez neban egundaiño entzun eta.

Ez ñoan idazleak nondik atara eban albiste ori. Berau irakurri eta beingoan itaunok egin neutsazan neure buruari: "Zelan izan lleitekek ori? Euskeraz idatzita laburpena ekarteko? Orduko euskaldunak bajakien euskeraz idazten, ala?"

Ulibarriko Galindez Jose Paulo semez Okendo errikoa izan zan, arabarra, eta bizi Abandon (oraingo Bilbon) bizi izan zan. Gizon ospetsua izan zan, antza, eta euskaltzale sutsua. Erremitteria ogibidez. 1847-garren urtean il zan. Ondorenez auxe esan bear: aurreko Batzarre Nagusiko agiriaren laburpena euskeraz idatzirik ekartea lortu baeban, ori XIX-garren gizaldiaren leenengo erdialdian edo gertatu zala. Orregaitik nik agertu dodan arrimena erabagi ori urte areetan artu ebelako. Zenbatek ete ekian aldi aretan euskeraz idazten?

Garai aretako euskal idazleakaz zuzen-zuzenean eta eskutitzen bidez artu-emon bero-berotan jardun ei eban. Baita euskerari beronen eskubideak biur-tzearen aldeko ekintzaille asperbagea izan ere. Ez bere garairako bakarrik, etorkizunerako ere bai, au da, gaurko ikastolen aurrelaritzat ar daitekela irakurri dot. Urrengo au ere berak lortu ei eban. Euskera zaintzen eta indartzen landa-lan egingo eban eta 24 taldekide izango zituan erakunde bat sortzeko asmoa agertu ei eban, gaur Euskaltzaindia deritxanarena ain zuzen. Aren atseginik aundiena auxe izan ei zan: batuk besteari idazten eutseezan eskutitzetan, norbere eta erriko agiritan, idazkun guztietan euskera erabiltea. Gernikako Batzarre Nagusietan Abando elizateko ordezkari zanez tarteko izan zan. Dakusgunez, ez zan, ez, edozelango gizona izan.

1826-garren urtean gutun bat egin eutsan A. Juan Mateo Zabala (1777-

1840) euskal idazle eta olerkari frantzizkotar entzute aundikoari bizkaiko Forua euskerara itzuli egiala eskatzeko.

Aita Juan Mateo Zabalaren erantzuna naiko zorrotza eta garratza izan zan: "Zer? Burua galanto ausi liburuak egin eziñik, artu orreek argitara atarateko, or, ogeta amar edo berrogei milla errial, eta gero, saguak, zedenak eta autsak yateko, edo dendetan tabakoa edo piperra salduteko... Ez nago ni orretarako... Nlgaitik forua erderaz geldituko da" (ARANZAZU, 7 orr.). Eta erderaz gelditu zan. Ez betiko, alan ere, lantxo onetan berton ikusiko dozunez.

Gernikako Batzarre Nagusietan euskeraz berba egiten ebela gauza ziurtzat jo daitekela uste dot. Forua erabarritzeko erabagia artu eben 1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean egin zan Batzarre Nagusi eta ospetsu aretan ERRIALDE ZABALEKO ("Tierra Llana"ko) berrogei eta amazortzi (edo emeretzi) elizate izan ziran errietako ordezkari lez esku-artu ebenak, ez ERRIBILDU edo "Villa" ziranak, ez Durangaldeak, ezta Enkartaldeak ere. ERRIBILDU edo "Villa"k geroago asi ziran Gernikako Batzarre Nagusietara joaten, XVII-garren mendean ERRIALDE ZABALAK eta ERRIBILDUAK alkargoa egin ebenean.

Erri-ordezkariorik, euneko eun, euskaldunak izango ziran ziurkiro, gaur ere erriok, geienak beinik-bein, euskaldun irauten dabe eta. Orduan areago. Gaztelera gutxi-gutxi jakingo eben, ezer jakitekotan, eta nekez berba egingo, eta idatzi nekezago. Batzarre Nagusi aretan erabilli eben berbakuntza euskera izango zan orrexegaitik. Batzarre Nagusiko agiria, alan ere, gaztelera utsez idatzi eben, eta bardin urrengo datozen berreun eta irurogeta zortzi legeak ere.

Zergaitik ori?

Oiturea orixe zalako izan zejitekean. Leen-leen, danok dakigunez, latinera izan zan goi-maillako izkuntza Europako errialdeetan. Latinera deuseztu eta galdu zanean, aren kumeak -latineratik sortu ziran berbakerak- artu eben erromatarren berbeteak gizartean eukan aipua. Erri-izkera batzuk -gaztelera, adibidez- orduantxe indartu, zabaldu eta aberastu ziran. Euskera, barriz, bapez. Gure aurretikoak uts aundj bat egin eben arlo onetan. Bai bizkaitarrak, bai gipuzkoarrak, eta baita euskalerriko beste lurraldeak ere. Ez ebela euskera jorratu eta landu. Gure literatur-barrutia naiko erkiña eta medarra da orrexegaitik. Etxeko berbetea egin eben berau, eskaratzetan eta suetetan, ardangeletan eta jolas-tokietan erabilten ebena. Latinerakumeentzat bakarrik izena, oorea eta omena. Euskerarentzat ezer ez edo urri-urri, zokondo-zokondoan eta bazter-bazterrean lotsor eta lotsati dakusgun muskildun mutiko baten antzera. Gizarteko artu-emon nagusietarako, gobernu-izkribuetarako, kultur-barrutirako eta abar, beste izkuntza bat artu eben, euskaldunontzat erbestekoa eta arrotza izan izkuntza. Ez zirala jabetu dirudi euskeraren ederraz eta balioaz. Euskal jakitunak, eskolatuak, agintariak, aberatsak, goiko eliz-gizonak, Nafarroako Erregeak eta besteak, euskerari buruz beste jarrera bat artu izan balebe, gaur beste goera obeago baten aurkitu zeitekean gure euskera gaixo au. Bizkaiko foru edo Lege-bilduma Barria euskeraz idatzi izan balitz, edo gutxieenz izkuntza bitan -euskeraz eta gaztelera- ikastunentzat zeinzen argigarri eta aberasgarri izango litzatekean Bizkaiko forua amaseigarren mendeko euskeraz jantzi-ta gaur irakurri aal izatea!

Beste arrazoi batzuk ere irakurri izan ditut.

Aitaturiko Batzarre Nagusia egin zanean, bizkai Jaurerriko Korrerjidorea Loayssako Pedro Giron zan, Ebroz andikaldeko gizona eta euskeraz ez ekiana. Orregaitik idatzi eben agirja eta lege guztiak gazteleraz? Ez dot uste orregaitik soilik izango zanik. Edo Jaurerriko Jauna Gaztelako Erregea zanez - Forua Errege onek onartu bear ebalako, orrexegaitik idatzi zirala agiria eta legeak gazteleraz irakurri dot nonbaiten.

Euskaldunok geure euskeraren egoera larria arretaz kontuan ar bagengi, txikikeria eta uskeria guztiak alde batera itxirik, eginaalak egingo gendukez euskera au onik atara eta arnas barria emon dagiogun. Euskeraren salbakuntza da, izan ere, gure erri onek gaur daukan arazorik garrantzizkoena eta preminazkoena. Euskalerrriaren ezaugarriarik beinena eta nabarmenena euskera dogulako. Berau gal balekigu, Euskalerrriarena egiñik legoke. Beste erri bat izango litzateke. Euskalerrria ez. Euskalerrria euskera-dun errria da.

Urtetan eta mendetan zear gure berbete au gainbera eta gainbera datorkjigu eten barik. Galtze onen zergaitiak aztertuko bagenduz, ainbat eta ainbat aurkituko gendukez zalantzarik barik.

Egia da. Euskalduna euskerazalea izan da beti, euskera maite-maite izan dauana. Osterantzean, zelan gordeko eban berbakuntza zoragarri au gero ondare miragarri lez guri, ondorengooi, lagatzeko? Eta batera baiña, arlo bazuetan ardurabakoak ere izan gara. Leen aldian eta orain aldian. Euskeraren gainbera etorte onetan, geu euskaldunok ere errudun izan gareala esan bear orrexegaitik.

Euskalduna gaiñera egundaiño ez da izan liburuzale, irakurzale. Euskeraz gutxiago. Entzunzale amorratua, ostera, bai. Orduak eta orduak egingo leukez bere gogoko bertsolari bati aspertu barik entzuten. Eta euskeraz irakurten eta idazten?

Au onan dala egiztatzeko, Bizkaiko Foru Barria edo Barriztatua mamindu zanean zer jazo zan gogora ekarri besterik ez daukagu, andi-andika eta gaiñez-gain ibillita zerbait argitu dogunez. Baiña guzti au joanik dogu, eta joandako urari presagiñan jardutea tentelen alperreko lana da.

II.- EUSKERAZKO LEENENGO ITZULPENA

1981-garren urtean, Durangon abenduko Liburu-Azoka edegi zanean kale-ratu zan Bizkaiko Foruaren argitaraldia izkuntza bitan dator: gazteleraz eta euskeraz, alderdi baten gazteleraz eta bestean euskeraz.

Gaztelerazko testua Foruaren irugarren argitaralditik artua da, au da, 1643-garreanean Bilbon irarri zan leenengo argitaralditik artua. Argitaraldi oni Huidobrorena deritxo. Arduraz egindako argitaraldia ei da berau, eta aituak djiñoenez, Bizkaiko foruaren argitaraldi guztietan bearbada onena.

Bizkaiko Foruaren euskerazko leen itzulpena dala eta, era bitako lana berezi bear da: Foruaren euskeratze-lana bata, eta Foru beraren adierazte-lana (interpretatze-lana bestea. Euskeratze-lana garrantizkoa izan bazan, aiderazte-lana ez da txikjagoa izan.

Foruak dakazan legeen esanaia argitu eta zeaztu baga, ezin zeitekean ezelan ere Foru ori euskeratu. Arlo onetan aditua eta ikasia ez danak lege askoren esangurea eta berba askoren adiera ulertu ere ez ditu egiten. Amaseigarren mendean egindako lana da, izan ere, Bizkaiko Forua, eta arrezkero urak bide luzeak eta sakonak urratu ditu. Euskeratze-lana neurea izan zan. Adierazte-lana, barriz, Jose Estornés Lasa jaunarena. Bizkaiko Foruaren euskerazko leen itzulpen au, ondorenez, biona da, Estornés Lasa erronkariar zaldunarena eta biona.

Pelotaka legez jardun izan genduan ogeta lau illabetetan. Nik lege batzuk euskeratu eta korreoz berari Donostiara bialdu. Eta berak an lege aldetik aztertu eta eginbearreko oarrak eginda gero, barriro niri Arteagra igorri. Pelotaka legez. Ekin eta ekin. Korreoari ere dirutan emon geuntsan, dirutan!

Pelotaka legez jardun arren, pelota-jokaldietan jazoten ez dana jazo jakun ekitaldi onetan. Jokalari biok izan gintzazala irabazle. Galtzaillerik ez zala izan. Au da: gure aalegin, neke eta jardunaldi guztien frutua, 1981-garren urtean argitaraturik plazaratu zan Bizkaiko Foruaren euskerazko leenengo itzulpen orixe dozu.

Beste irabaztun bat ere izan dala esateko nako: Bizkaia bera, edo nai badozu, Euskalerrria bera. Foruak dirala eta, gertatu ere, gauza bltxia gertatu da gure artean. Bizkaiaren eta Euskalerrriaren Kondairan zear Foruak garrantzi aundia izan dabela edonork daki. Ainbeste eta ainbeste urtetan or ibilli gara Foruak gora eta Foruak beera, zarataka eta uluka, eta Foruok kendu euskuezalako, arpegitik beera negar-anpulu garratzak erioguzala, negar-zotinka, zizpuruka eta aieneka. Foru Barri au baiña, 1526-garrenean burutua izan, ete leenengo aldiz 1528-garren urtean Burgos-en irarria izan arren, euskerara itzuli ere ez dogu egin euskaldunok, 1981-garreneko argitaraldia agertu arte. LAUREUN ETA BERROGETA AMABOST urte geroago! Bada zerbait. Entzun doguz Aita Juan Mateo Zabalaren itz zorrotzak.

Ajn foruzale izan dan Euskalerrri onek utsune ori zelan izan eta dau? Lotsari auxe kendu gura izan geuntsan Bizkaiari eta Euskalerrriari.

Arazo au dala eta, beste gertakari bitxj bat izan dogu. Auxe: Bizkaiko Forua izan eta leenengo aldiz euskeratu ebenak nafar bat eta arabar bat izatea. Olakorik!

Euskerari berari ere mesedegarria izan dakiokela uste dot gure itzulpen ab. Liburuaren azken aldean datorren Foru-iztegi orretan 711 berba aurkituko dozuz Forua aalik eta zeatzen euskeratzeko erabilli izan genduzanak. Itz guztiguztiak ez dira egokienak izango agian, baiña lege-iztegia erabat osotzeko lagungarri eta onuragarri izan daitekezela eta nago.

Itzulpena kaleratu eta andik illabete batzuetara –maiatzak 12, 1982– Aita Luis Villasantek, orduango Euskaltzainburuak, eskutitz bat egin eustan Aran-

tzazutik. Eskutitz aretan auxe iñostan: "Jaun agurgarri eta adiskidea: Harriturik nago oraindik egin didazun opari eder-baliotsuaz. Eman nizkizun ahoz esker-rak, baina idazkiz ematea ere zor dizut. Lan benetan gaitz, eskerga eta handia burutu duzula ikusten ari naiz. Lan ongi egiña beste aldetik, eta lege arloan bide bat ideki dezakena. Zorionak!".

Itzulpenak iru idaztaldi izan zituan. Leenengoan bideak urratu egin genduzan, au da, legeen eta itzen esankizuna eta aidera zeaztu eta iztegia aukeratu. Bigarren idaztaldian, aalik eta euskerarik jatorrenean itzulpena egin. Baina bigarren idaztaldi au orrazkeran eta zuzenketak egikeran, orri guztiak zirriborroz bete nebazan eta, barriren barri liburu osoa idatzi bear izan neban. Orra irugarren idaztaldia. Auxe izan zan argitaratu eta plazaratu zana.

Ez uste izan, orraitino, lege bakotxa iru aldiz soillik euskeratu nebanik. Idaztaldi bakotxean lege bakotxa iru-lau aldiz itzuli neban. Au dala eta, lege guztiak zortzi-amar biderrez euskeratuta dagozala esango baneu, ez neuke larregikeririk bape jaurtiko. Ez, ez. Itzulpena ez zan arrapaladan eta arin-arin egiña izan. An jardun izan genduan urte bitan ekin eta ekin izerditan, neketan, aalegintan, "aurgintza minetan" (Mikel Zaratek esango leukenez). Guzti-guztia ondo-ondo euskeratuta ez da egongo ziurkiro, baina dan-dana txarto-txarto egongo danik ere ez dot uste.

Itzulpena burutukeran gauza bi izan genduzan gogoan: Foruagazko zintzotasuna eta leialtasuna, leenengo. Auxe: lege bakotxaren mamiña eta adierazkizuna aalik eta zeatzen agertu. Bizkaiko forua lege-bilduma utsa da, 268 lege daukazan bilduma. Legeok 36 ataletan datoz bananduta. Legeok erabagiten dabena adiera eta esangura beratan azaldu bear zan. Itzulpena orduantxe soillik izan zeitekean egiazkoa, zintzoa eta leiala. Auxe izan zan guretzat garrantzizkoen elburua, euskeraren beraren jatortasuna baiño ere areago. Zintzotasun eta leialtasun oni beste ezeri baiño arretatsuago lotu gintzakiezan. Eta zintzotasun au argi ager zeiten —aal izan zan neurrian— inoiz euskeraren berez-berezko joskerari ere uko egin bear izan neuntsan.

Leialtasun onen urrengo, euskeraren zelangotasuna gogo-gogoan izan neban, erriko euskerarik ulerterrezena erabilten aaleginduz. Alan eta guzti ere, edozein lege edonork ulertzeko eran, ezin ezelan ere euskeratu. Irakurlea bera zerbait —edo zerbait baiño geiago— ikasia eta eskolatua izan bear euskeraren barrutian eta kultur alorrean. Bestalde, gaiak berak eta legeen esanaia zeatz agertzeko ekarri bear izan ziran itzak irakurgaia illundu egin egikeen. Au baiña, ezinbestekoa izan.

III.— ITZULPENA BIZKAIERAZ

Bizkaieraz dator itzulpena. Eginkizun orixe leporatu eustan José Estornés Lasa (G.B.) erronkariar zaldunak. itzulpena bizkaieraz egiteko, euskeratzen zana Bizkaiko Forua zanez gero.

Nik itzulpenean darabildan bizkaiera onek, alan ere, badau zerbait berezirik edo oargarririk. Aldi aretako kezkaen agergarri izan zala esango neuke.

1970-garren urtean, Morgan bizi nintzala, "Euskal aditza-bizkaiera" izeneko liburua argitara ekarri nebanean, gorago aitaturiko A. Villasantek, orduan ere Euskaltzainburu zanak gutuntxo bat bialdu eustean, eta bertan auxe iñostan: "Euskalkiak lantzea guztiz zilegi da. Orain euskalki horiek ez ditezela elkarrengandik urrundu, eta ahal den neurrian, elkargana urreratzeko ahaleginak egin ditzagula, hori da oraingoz (eta luzarorako noski) Euskaltzaindiaren bidea eta kontsejua" (arira datorrena besterik ez dot aitatu).

Euskalkiak bata-besteagana urreratze onetan izan dogu Bizkaian aaztu eziñeko eragille eta bultzagille bat: Mikel Zarate izan zana (G.B.). Mundu onetatik goizegi eta gaztegi joan zan maixu paregabe a. Galtze ikaragarria izan eban gure euskera onek bera galdu ebanean!

"Bizkaieraz nator —dirausku berak "Euskal deklinabidea" deritxan liburuan—. Bizkaieraz nator, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako. Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, betjko euskera jatorra, euskera osoaren biotzean dagoana. Eta euskera dan ezkerero, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oiñarrian dagoan euskera batu ori ezagutu egin bear dogu, leenengo eta bein, batutik batuagorantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko" (Itzaurrea, 9 orr.).

Onantxe itz egin eban maixu aundi arek. Eta taiuzko berba zuur oneek, nji bizkaitarra izan ez erren, baiña neu ere "bizkaieraz azi eta ezi ninduelako", neureztat artu nebazan itzulpena egiteko.

Mikel Zaratek darakusgun euskal deklinabidekera bera darabilt Bizkaiko Foruaren euskerazko leenengo itzulpen onetan.

Bide orrexeri jarraiturik, aditzari gagokiozala, "dodaz", "doguz", "nebazan", "ebazan", eta onango beste adizkien orde, "ditut", "ditugu", "nituan", "zituan" eta antzeko jokoak dakardaz, sortzez Bizkaikoak izan ez arren, Bizkaian ere entzun egiten diralako.

Bizkaieratik beste euskalkietara urreratuaz goaz, beraz, itzulpenean, "ahal den naurrian", Aita villasante esanaren arabera.

"Auxe dala esango neuke zuzenatariko era bat, euskalkiak, bata-besteagandik urrundu bearrean, alkarrengana urreragotzeko, euskalkien arteko biartea eta leizea aundiagotu barik, estuagotu eta medarragotu egin dakigun", idatzi neban nik aurreko lan baten (Ikus EUSKERAZAINTZA, XXIX zenbakia, 1994, 20 orr.).

Itzak aukeratzeari edo iztegiari buruz ertz bitatik iges egin gura izan genduan, gure ustez kaltegarriak ziran ertz bitatik: garbizalekeriatik eta mordoillokeriatik. Bien bitarteko bidea artu genduan. Aal zala, euskerazko berbea erabili. Ori ezin zanean, gaztelerazko testuak dakarren berbea euskaldundu. Au

dala eta, korrejidore, prestameru, merinu eta gazteleratiko beste itz batzuk aurki daitezke itzulpenean.

Foruaren gaztelerazko testuak ainbeste bidar aitatzen dauan "libertades" jtzta euskeratzeko neureak eta bost igaro nituala esan bear dot. Bai, bai, naiko buruko min izan neban. Leenengo idaztaldian "askabideak" berbea artu neban itz ori euskerara biurtzeko. Ez dot uste txarto-txarto jtzulita egongo zanik. Baiña lege-bilduma guztia itzuliaz gero, "libertades" berba orrek esangura berezia eballa Foruan bururatu jatan, eta itz berorrek daukan sortzeko mamiña eta guna agerrazoteko, "erri-eskubideak" berbea askoz egokiagoa zala iruditu jatan.

Bizkaiko Foruak dakazan legeak, izan ere, ez dira edonoizko eta non-naiko legeak. Ez dira burutapen uts, "libertad" ori mamindu eta gauzatu egin oji dan gertakari zeatza baiño. Beste berba batez esanda: Bizkaia zer gauzatan dan aske edo zer jazoeratan dan bere eskuko eta bere buraren jabe. Orixe besterik ez da Bizkaiko Foru guztia. Eta Forua errian sortu ziran eta erri beronek urte-tan eta mendetan gorde eta bete zituan usario eta oituretatik datorkigunez gero, "libertades" itz dontsu ori zentzu jatorrean, egokienean eta esangura-tsuenean itzultzeko berbea ERRI-ESKUBIDEAK zala orrexegaitik.

Beste itz bat itzultzeko ere "izerdia" emon bear izan neban: "rebeldía" itza. Gaztelerazko "juzgar en rebeldía", adibidez, euskerazko berba jatorrez zelan biurtu? Foruak "rebeldía" dakarrenean, ez dau matxinada edo iraultza adierazo nai. Eskugo edo zuzenbide-adiera eta zentzunean artu bear da.

Iñon ere ez neban itz egokirik aurkitzen adiera orretan "rebeldía" itza euskeratzeko. Iñon ere ez. Nik nituan iztegiak ez eusten orretarako argibiderik emoten. Zer egin? Estornés Lasa jaunarengana jo neban, eta onek auxe erantzun: Larramendik bere iztegi aundian "rebeldía" berbea "urrunde" euskeratzen eballa, eta besterik barik berba orixe aukeratu neban itzulpenerako. "Juzgar en rebeldía" esakuna, ondorenez, "urrundean epaitu" itzuli neban. Zuzen? Oker? Ez dakit, baiña beste urtenbiderik ez neukan.

"Privilegio" itza ere badakar Foruak. Baiña Bizkaiko Foruan "privilegio" itz ori ez da bestek utsean edo dubarik egindako mesede bat, emen berton bizirik diran lege bereziak baiño.

Itz bat edo beste era beratan laga bear jzan nituan, "franqueza" jtzta, adibidez, "frankeza" itzulirik. Zergajitik? Estornés Lasa jaunak egun batez auxe esan eustan: "Itz orrek amaseigarren gizaldian zer adierazo gura eban iñork ere ez ekiala. Adituak ez datozela bat orretan, eta itz ori dagoan lez izteko". Nik aren esanetara itzultzen neban, eta berak ori esan ezkeru, egoan erara laga bear.

IV.– ITZULPENAREN ZAILTASUNAK

José Estornés Lasa jaunak Bizkaiko Foruaren ale bat Gautegiz-Arteagara eroan eustan. Ale ari leenengo aldiz gainbegiratu bat emon neuntzanean, euskerara biurtzeko guztiz zaila eta gatxa iruditu jatan, eta beingo baten korreoz

Donostiara bialdu neuntsan, eta auxe esaten: ni ez nintzala gauza liburu a euskerara itzultzeko, eta ni baiño trebeago zan bat aurkitzeko. Itzultzailea zein izan zeiteken izendatu ere egin neuntsan: Mikel Zarate. Beronegaz berba egin ere egin neban, baiña Mikel Zaratek garai aretan sorkuntza-lanetan jardutea gurago eban itzulpen lanetan baiño. Bestaldetik, Estornés Lasa jauna, nik bialduriko Bizkaiko Foruaren atea besapean ebala, barriro Arteagara etorri eta ekin eta ekin egin eustan, legeen eta itzen esangurea argitzen eta zeazten berak lagunduko eustala esanez eta esanez. Azkenik aren asmoetara eta gurarietara makurtu nintzan, eta berealako baten lanari lotu gintzakiozan.

Itzulpena burutzeko zer zailtasun edo gaxtasun izan neban gura izango leuke bearbada norbaitek.

Leenengo oztopoa Foruak dakarren gaztelera bera izan zan. Izkuntza au amaseigarren mendekoa da, garai aretako Eskribauen lege-berbakera, eta esakuntza luzeak eta luzeak, biurriak eta naastuak dakazana. Onango esaldiak zerbait ulergarriro eta egokiro euskerara biurtu gura izateak badakar zalantzarik baga naiko nekerik eta buru-austerik.

Bigaren zailtasuna, aundia baiño aundiagoa, amaseigarren gizaldiaz onantz esaldi eta berba askoren esankizuna eta adierazkizuna aldatu eta aldatu egin dala izan zan. Eta berbok eta esakuntzok zer adierazo nai daben jakin barik, zelan euskeratu? Ori dala eta, legeetan agertzen diran esaldi eta berba askoren esangurea mugatu eta zeaztu egin bear, esangura orretan beratan euskerara biurtzeko. Bear-bearrezko egintza eta lana. Lan gatx eta eskerga au José Estornés Lasa jaunak egin eban, eta aren esanetara gero nik euskeratu.

Adibide bat dakarket oztopo eta eragozpen onetaz konturatu zaitez.

Foruaren IV Atalak onan diño:

"DE LA RESIDENCIA DE LOS ALCALDES Y EJECUTORES.

LEY I: Que los Alcaldes de Fuero y herrerías y Diputados hagan residencia, y en qué casos no pueden tornar a los mismos oficios" (ondoren legea dator).

Berbakera au zelan ulertu? "Residencia" eta "hacer residencia", gaurko berbetan egoitza edo bizilekua esan gura dala dirudi, eta onantxe euskeratu neban nik, baiña onan itzuli ezker, lege a zertara datorren ere ez da ulertzen. Estornés Lasa jaunak jakin eragin eustanez, amaseigarren gizaldian eta lege-berbauntzan "hacer residencia" esamoldeak kontu-emotea esan gura ebala, au da, alkateak eta beste kargudunak euren egitekoen eta karguaren kontua emon bear ebela... Onan, bai, onan ederto ulertzen da legeak agintzen dauana.

Iruigarren zailtasuna auxe izan zan: legeen eta berba askoren adiera bear dan zintzotasunaz eta argitasunaz argitara ekarteko euskerazko itz egokirik eza.

Bizkaiko Forua, izan ere, lege utsa da edo lege utsezko bilduma, gorago

ere zeaztu dogunez. Eta lege-barrutian (Eskugo-Zuzenbide edo "Derecho" arloan) zoritzarrez, euskera ez da erabili. Alor orretan euskara antzu eta antzu daukagu orrexegaitik. Ortik etorren gatxtasuna. Foru-liburuak azken aldera dakarren iztegian ZAZPIREUN eta AMAIKA itz daukazuz legeetako itzen esan-gura zeaztu aal izateko, itzulpena egikeran, gure leenengo elburua —leen ere esan dot— Foruagazko zintzotasuna eta leialtasuna izan ziralako.

V.—ERABILITAKO IZTEGIAK

Iztegiak aitatzerakoan, leenengo A. Plazido Mujikaren "Diccionario Castellano Vasco" iztegi mardula aitatu gura neuke. Berau izan neban lanerako tresnarik baliotsuena. Ezin esan alako mesedea egin eustan. Iztegi au izan ez baneu, ezin izango neikean egin neban lana burutu.

Azkueren iru izkuntzatako iztegia ere guztiz lagungarri izan jatan.

A. Manuel Larramendiren Iztegiara ere iñoiz jo izan genduan. "Urrunde" itza, esate baterako, gaztelerazko "rebeldía" euskeratzeko andixik artuta dago, leen agertu dodanez. Baita "bigabesa" berbea ere, gaztelerazko "brazá" adierazoteko.

VI.—EUSKERAZKO BERBAK BIZKAIKO FORUAN

Arrago: Azkueren eritxiz, "crisol" da, oletan burdiñea urtzeko zuloa. XXIX Atalean, X Legean dator.

Geldo: Gaztelerazko "escoria" da, au da, oletan burdiñea urtu eta gero gelditzen dan zabarra edo ondakiña. Arabako Oleta erritxoan "zepa" esaten da. XXVII Atalean, I Legean daukagu.

Usa: Erriko basoa. Azkuek ere badakar bere iztegian. I Atalean, VIII Legean dator.

II buruko: Testamento (en la cabecera de la muerte, Adrián Celaya). Azkuek diñoanez itz au Bizkaiko Foruak dakar. Baiña nik ez dot aurkitu Foru Barrian edo Barriztatuan. Foru Zaarrak dakar, antza.

PEDRO PUXANA



ARZELUS'TAR AMALE ANDEREÑO IDAZLEA

Lengo larunbatean, Donosti'ko Arrasate kalean, Kutxak daukan aretoan, bere aitari buruz, "LUZEAR"eri buruz ain zuzen, itzaldi bat eman zuen Arzelus'tar Amale andreak. Bildugela gizasemez lertzen, adi adi entzuten; 60 entzule izango ziren. Euskerazaintzak antolatu zuen itzaldia.

Aitarentzat alaba mintzo zela, Amale'gaz idazlan bat egitea bururatu zitzaidan. Asmatu ta egin: orrelako emakume aberzale sutsua ezagutzera eman nai nuen.

Emakume au ezagutzeko okerbide batzuek daude: bat "LUZEAR"en alaba dugula bakarrik, ustea, eta bi "sukaldeko euskara" erakasten ibilli dela Donostia'n. Bi neurr; oiek ez dire naikoak Amale'ren egiztako nortasunaren berriak emateko. Beste malla bat dauka askozez aundiagoa.

Beste zerbait geiago esan aurretik, nor dugun Arzelus'tar Amale, goazen agertzera.

NOR DUGU EMAKUME ABERTZALE AU?

Donostia'n jaio zen 1942'garren urtean. Aita, Ander, Donostia'rra zeukan, ama berriz, Amalia Arrieta, Donostia'rra baita ere. Lau seme alaba euki zituzten gurasoak.

Amabi urte zitula, ikastetxea utzi bear, anaiarteko borroka, guda sortu zen (1936).

Aita, "uriburubatzordekoa" zelata, sendi osoa Zarautz'era joateko agindu zien. Ander Arzelus, aita, Madrid'era egazkiñez, tresna kaxkar batean joan zen José Antonio Agurre'rek; n: Euskadi'ko Estatutoa asmo nagusi zeukatela, diote.

Guda aurrera zijoala, aberzaleak galtzen. Amale'n sendia beti iges; Deba, Lekeitio, Bilbao. Azkeneko iri onetan zazpi illabete egin zituzten.

1937'garren urtean Euskadi galdua zegolarik, LA HABAÑA urontzian, ama, lau senideekin eta oien artean Amale, Le Havre, Frantzia'ko iri aundira iges joan ziren. Al zutenian Ipar Euskalerrira urbidu zitzaizkien: Kanbo, Askain, Donibane Loitzun, Askain...

1940'garren urtean, Amale'n ama, lau seme-alabeekin Donosti'ra itzuli zen, San Jeronimo kalera ain zuzen. Amale frantzes iskuntza erakasten asi zen.

1943'garren urtean, aita espetxetik ateratzen da. Madrid'en arkitu zuen lana, emendik bota zutelako. Aitari laguntza eskeintzera joan zen sendi osoa Madrid'era bizitzera.

1944'garren urtean, aita Donosti'ra itzulita, Hernani'n asi zen lanean eta andik Donostj'ko Kutxa'ra sartzeko aukera eman zioten berriz.

1946'garren urtean, irakorla batean lanean jarri zuten Amale.

1947'garren urtean, Gaba batean, bi polizi aita eramatera etorrira, onek iges egin zuen. Donostia'n bertan, illabete batzuek gordeta irauin zuen eta mugaz gora, mendiz joan zen. Bi urte egin zituen erbestean.

1948'garren urtean Andoni Zinkunegi'kin eskontzen da Amale. Senarra, Errenderi'tar argazkilaria dauka. San Jeronimo kalean jarraitzen dute bizitzen. Bederatzi seme-alaba dituzte.

1949'garren urtean, aita, ondo eziñik zegoela Paris'era ebakuntza egitera eramain zuten. Dagonillaren 17'an il zen. Illetak Donostia'n egin zizkioten. Il aurretik, Amale muga al zuen bezala igarota, aita ikustera joan zitzaion.

1949'garren urtean, Amalek ikastola irikitzen du etxean, San Jeronimo kalean.

1993'garren urtean Amale alarguntzen da.

EUSKARAREN BULTZAGILLEA GROS'EN

Amale'n etxean "lana" ta "zigorra" itzak entzun dituzte maiz. Amale'k karre-bat egiteko astirik edo aukerarik ez du izan. Bainan aberria zaintzeko beti zutik eta zai. Euskara, etxean gogotik erabiltzen zuten, eten gabe. Ba zekiten euskera Euskalerrri'ko arnasa zela. Euskalerrri'ko izkillu oberena, berriz "sukaldeko euskara", batzuek ala deitzen zutena. Danezgain euskararen maitasuna ta gogoa izaki egitazko indarra. Orixe bera zen Amale Arzelus'en biotzaren sugarra, euskararen zaletasuna ta gogoa. Orregaitik iriki zuen ikastola bat San Jeronimo kalean 20'garren zenbakian, 1949'garren urtean (urte txar aietako batean). Ezeren agiririk gabe; ez batxilleraturik, ez pedagogirik edo maixutzarik. Eztare iñoren baimenik.

1945'garren urtean, Elbira Zipitria'k, guda ondotik, lenengo ikastola irikitzen du Euskalerrria'n, Donostia'n ai zuzen, bere etxean. Ara dijoa Amale ikastera nola aurrei euskara erakatsi ta nola ezi aurrak euskal alorrean. Lanean ikasten du Amale'k nola erabilli ikastola.

1963'garren urtean, Donosti'ko alderdi zarretik Gros delako auzora aldatzen da bizitzera. Orrela Gros'en, etxean irikitzen du ikastola bat (Tercio San Miguel aurrena, gero Paseo de Colón, azkenean Peña y Goñi 10 kalean).

Elbira Zipitria'k zeramakin giro berdiña sortzen alegintzen da; goizean talde

batekin bi ordu ta atsaldean beste bi ordu beste taldearekin. Talde bakoitzean amar ikasle izaten zituzten. Aurreneko urtean bi ikasle euki zituen, Juan Mari Zaldua ta onen anaia.

Talde batean 3-6 urteko aurrak sartzen zituen; beste taldean berriz 6-9 urtekoak.

Txikiekin lana auxe izaten zen: irakurri, idatzi, zenbatu, jolas eta abestu euskaraz.

Aundiekin, berriz, "ingreso" rako gedutzen zituzten ikasleak.

Garai berdiñean, baita, jaunartzeko prestatzen aurrak zebillen. Lenengo jaunartzea Santa María elizan izaten zen euskaraz.

Asieran aurrak 75 pezeta orda; ntzen zuten illero.

1968'garren urtean eman zuen azkeneko ikastaroa. Bukaera artan zortzi ikasle zituen. Agintariak ikastolak legeztatzen asi zirenean etxeetako ikastolentzat etorkizuna illuntzen zijoan. Gaiñera Zurriola delako ikastola iriki zen Gros'en 1968'garren urtean.

1963'garren urtetik 1968'garren urtera, Amale bere ikastolarekin izan zen Gros'en, Donosti'ko auzo aundi ortan euskararen ikurriña, egitazko kabiya, ustegabeko erronka.

Ezin dugu aztu Gros Donosti'ko auzo aundi bat dela, gizaldi onetan eraikia. Irutik bi jaiotza, erdaldunak dire ta euskaldunak erdararekin kutsatuak. Erdal kutsu aundiko auzoa daukagu. Garai artan euskara mendiko izkuntza bezala artua zegoen.

Lañoz betea ta estalia zeukan euskarak ortzia Gros delako erdaldun auzoan. Euskararen izar bat Amale ta bere ikastola. Ezin dugu aztu beste ikastola, María Dolores Goya andereñoarekin Karkizano kalean (1951-1970) eta onen alaba Miren Egaña Goya (1964-1975). Erronka ederra euskararen eremu aundi ortan. Amale'n jokabide ziñezko ori, titulorik gabeko euskotar eta euskarazale emakume guzitz berexi baten ekintza da. Eta ez da ori dena. Euskal antzerki bateko kide dugu ta noiz beinka agerketak URIGAIN jauregian, Konkorene ondoan egiten zituzten.

AMALE EUSKAL IDAZKEA

Andereño zelarik, etxean, bertan zeukan ikastolan, garai artan as; zen idazten euskeraz. Lenengo lana "AGUR" aldizkarian agertu zuen. Oso ondo idazten zuela esan zioten. Gero "GOIZ ARG!" aldizkarian jarraitu zuen.

1988'garren urtean, beste batzuekin "ARBASOEN Izkuntzazaleak" delako elkarte sortzen du, euskara auzoan indartzeko. Elkarte onek aldizkari bat argitaratzen alegintzen da, "ERRI EUSKERA" izenekoa. Asieratik Amale Arzellus zuzendari bezala azaltzen zaigu. Asieran aldizkaria makinaz idazten zuten eta gero fotokopiatu: sei orrialde ditu. Amale'n aurreneko idazlana, lenengo

zenbakian, "Euskera Gai, Bein eta Berriz" izenarekin argitaratu zuen. Gai ori maiz erabiliko du.

Orain ordenadorearen bidez egiten dute aldizkaria; ogei orrialde ditu. "Euskera Garbitzen", "Kale Izenak Gora ta Bera", "Alzaga'tar Toribio" izenburuekin idazten ditu iru idazlan azkeneko zenbakian (1995'garren urtean Lorailan). Berrogeitairu zenbaki agertu dire gaur arte.

Euskal alorreran idazle aundiena bezala, Lizardi dauka ta itz-lauz bere aita "LUZEAR".

Koldo Mitxelena ere asko maite du: "Euskera espetxean landu zuen", zion, naiz bere jokabidearekin ados ez izan beti. Amale'n aita "LUZEAR" espetxean Mitxelena'rekin batean egon zen.

Amale, 1992'garren urtean EUSKERAZAINTZA elkartean asia da lanean. Aurten 1995'garren urtean maikidea izendatu dute.

Orrexek agertzen digu zenbaterañoکو maitasuna dion euskerari: aitzaki guztiak onak gure izkuntzaren garrantzia aipatzeko. Euskara ta Euskalerrria bai direla Amale'n egitazko maitasunak. Bitartean ortxen daukagu, eten gabe lanean. Orain berak sortutako aldizkari batean. Oraindik ortxen daukagu euskararen bultzagillea Gros'en.

SENDI BATEN EUSKAL BEREXITASUNA


Gaiñera Amale'k, euskal sendi berexia sortu du. Egitazko euskaldunak izaten lagundu die. Euskal gai ortan berri berexi bat da dute Euskalerrria'rentzat. Sendian euskal garra ta arnasa dagonian, orduntxe ta uzta zoriagoa ematen du. Ara ba berri zoragarria: Iru alaba, naiz Donostia'rrak izan, kaletarrak, Naparroa'ko iru baserritarrekin ezkondu zaizkio. Irurak, senarren naparroa'ko erri koxkorretara joan zaizkio bizitzara. ONIN I LE, Fermin Iparragirre'kin ezkondu da "PERUGORREA" baserrira Etxalar'en. ITXARONE, berriz, Santos Irurueta'rekin, "BARRENE 1 XE" baserrira, Eloorriaga'n. Eta irugarrena MIRENLIDE José Luis Sanmartín'ekin, Doneztebe'ra. Malla ederra eman dute Euskalerrria'n. Donosti'ko iru neska kaletar, iru napar baserritarrekin ezkondu ta senarren etxeetara bizitzera joan. Orrek agertzen digu zenbateraño-koa den, etxe onetan Euskalerrria'ren maitasuna. Giro ori Amale'n lana da.

TA KRISTAUIKASBIDEA EUSKERAZ

Oraindik zerbait geiago egiten du gure Amale'k. Astean bein kristauikasbidea ematera joaten da San Inazio delako parrokira, Gros'en; lau urte ezkeroz egiten du. Talde bat dauka, bederatzia lagunekin, amar urteko aurrak. Sinismenaren arazoak euskaraz agertzen dizkie. Laguntza ederra euskarari, baita elizarentzat. Orrela Amale'k aukera denak jasotzen ditu euskara zuzpertzeko. Malla ortan arrigarria da, baita eredu ederra gaurko gure gizartearentzat.

Al dula euskara bizirik zuzpertzzen alegintzen da. Beti zutik, lanean asteko zai. Ortarako bi gauza bear; kemena ta maitasuna.

LATXAGA



AITA ONAINDIA EUSKAL OLERKARIEN ARTEAN TXAPELDUN

Euskal idazleen artean erraldioen buru dugu Aita Shanti Onaindia. Itz-lauz guztiz ona ta olerkari bezala euskal literatura osoan onena. Olerkari aipatuena bezala, Orixe, Lizardi ta Lauaxeta, gaur arte ontzaz emanak izan dire. Shanti Onaindia oien gañetik dabil, nere ustez.

Bizirik dagola, idazle bakarra izango da, "Idazlan guztien zerrenda" liburua-
ren (bibliografia) jabe; 58 orri aldekoa. Ondo irabazia gañera; liburuak 51, idaz-
lanak 28 aldizkarietan 552, Olerkiak 322 (1989), sariak ezin konta
(1967'garren urtean Jose Antonio Aguirre sana).

Bizirik dagolarik gutxi dire "Ikerketa-Beka" bere izenarekin eukitzera iritsi
direnak. Amorebieta-Etxano'ko Udalak sortu zuen 1989'garren urtean.

NOR DUGU AITA SHANTI ONAINDIA BASETA?

Berak ematen dizkigu berriak "OROI-TXINPARTAK" (1988) delako liburuan.

1909'garren urtean Amoroto'n (Bizkaia) jaio da "ATXURIARTE" baserrian.
Migel Onaindia Barrutia ta Jazinta Baseta Albizuri dire gurasoen izenak. Neska
bi ta iru mutil euki zituzten; Brijida Markina'n il zena, Maria gaur Berriz'en
dagona, Bizente karmeldar jantzia artzeko garaian illa, Balenti anaiarteko
gudan illa, ta Aita Shanti.

1922'garren urtean, Santa Barbara egunean, aita ta bera goiz jeikita, Amo-
roto'tik oñez Lekeitio'ra dioa, bertan autobusa artu ta Gernika'ra eta an trenaz
Zornotza'ra. Iri ontan utzi zuen aita karmeltarren eskuetan. 1926'garren ur-
tean asi zuen nobiziadua.

1934'garren urtean Begoña'ko KARMELOAN apaiztu zuten.

1936'garren urtean, gudan, Kirikiño batalloiarekin ibilli zen; Kanpanzar, In-
txorta, Elgeta, Ubera ta Basalgo'n lenengo, ta gero Gorozika, Bizkargi, Fika,

Sollube, Derio, Artxanda, Ortuella, Muskiz, Zalla, Bezi, Truzios, Jibaxa, Guriezo, Otañes...

Iru urte egin zituen espetxean; Dueso (1937-1938), Nanklares (1938), Dueñas (1938-1939), Karmona (1939-1940), Hoz de Anero (Santander).

Geroztik bizpairu etxetan aita nagusia izan da: Hoz, Larrea, Eibar.

1947'garren urtean Karmel aldizkariaren zuzendaritza artzen du. 1959'garren urtean OLERTI aldizkaria sortzea lortu zuen.

Bere bizitza osoa idazten igaro du, baita eliz-izlari bezala (107 elizetan Bizkaia'n), gaiñera jaiak eta erromesak ospatzera deitzen zuten. Euskal kulturari buruz itzaldiak ematera maiz deitu dute (44 errietatik).

Idazle langillea izan da. Berri asko bildu bear zituen ainbesterañoko aldizkarietan idazteko.

Bi liburu ditu benetan altxorrak. Bat itz-lauz "OROI-TXINPARTAK". Bestea, olerki guzien liburua. "OLERKI GUZTIEN BILDUMA", Larrea 1989.

Itz-lauz ikaragarritzko errestasuna dauka idazteko; joskera aberatsa, itzak berexi berexiak, esaera garbiak, asmoak margodunak, gaiak ezberdintasun aundikoak.

Asko ta asko egin ditu itzulpenak. Orrexek eman dio elertiaren ikuspegi zabala ta ezberdiña: Homero'n odisea, Birgilio, Dante, Gabriela Mistral, Tagore ta abar.

Aipagarriak dire Aita Shanti'ren Euskal literaturaren ikerketak; lan mardula ta sakona.

AITA SHANTI OLERKARIA

Aita Shanti'ren lanetik onena, bere olerkiak deritzaizkigu. Aita Shanti'ren olerkiak neurtzera goazela, danez gain, sarrera bezala, asmo zabal batzuek esatera gatoz.

Lendabizi, olerki alorrean, oso motz jantzia nagola aitortu bear, eta Aita Shanti'ren lana oso aberatsa izaki. Gelegi neretzat.

Aita Shanti'ren olerkiak, liburu ortan bilduak izan diren bezala, naiz oso onak izan, naiko ezberdiñak dire.

Lenengo esan bearra: "NERE BASERRIA (Euskal Poema, 219-290) delakoan erdal kutsuzko itz asko, bearrezkoak ez zirenak sartzen ditu: konta (221 or.), kolorez (224 or.), palta (241 or.), ganaduak (243 or.), mota (242 or.), leku (255 or.), karzelan (257 or.), pare (258 or.), prest (264 or.) eta abar. Abek dire eredu batzuek besteen artean.

Bigarren: "GURE EGOITZA" delako olerkia "H"tzez josia dago (244-245 o.). Arritzekoa da ori dena Aita Shanti'k sartzea: "han", "haiz", "haitzur", "hilen", "ahatze", "kanpatu". Beste iñun ez ditu sartzen. Ze gertatu ote zitzaion emen?

Irugarren: nere ustez lanik ederra "GOIZNABAR", "EGUERDI", "ILLUNABAR" delakoak dire. Bilduma orrek gallur malla jotzen du egokitasunaren aldetik.

Laugarren: Olerkien jabetza dauka, egin dezake nai duna. Neurriak aldatzen ditu nai duen bezala; neurri ezberdiñak erabiltzen ditu, obeto egokitzen zaion bezala. Ikaragarritzko errestasuna dauka ortarako. Bersoak zutik gelditzen zaizkio beti.

Bosgarren: Irudi indar aundikoak, bat batean, borobil borobil esanak ez ditut geiegi ikusi edo ez zaizkit buruan zutik gelditu.


Seigarren: Arritzekoa da baño, ez dugu olerki mistikorik arkitu. Naiz karmeldarra izan, naiz bee Gurutzeko San Juan eta Santa Teresa ondo ezagutu ta oien lan asko euskaraz itzuli, mistiko kutsuzko olerkirik ez dauzka.

Zazpigarren: Nun dago Aita Shanti'ren lanaren mami lodia? Izkuntzaren egokitasuna azpimarratuko genuke danez gain. Itz bat naikoa dena esateko: "izkuntza" guztiz ona dauka. Izkuntzaren saldarik onena ematen digu.

Izkuntzaren egokitasun orlan ez du iñork irabazten. Benetan txapeldun agertzen zaigu.

Izkuntzaren egokitasuna ikusteko ez dugu olerki osoa artu bear. Naikoa da leerro bat.

Ikus ditzagun eredu batzuek:
"Loreil, maite aro
min-soroski samur
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!" (Loreil, 8 or.)



Itzak datozte iturriaren bizitasunarekin; ota ta dasta dakarte, jauzika. Indarra dago, baita margo ezea ta gordiña. Itz ezberdiñen lotura orrek dauka egokitasuna ta indarra.

Euskara garbienetakoa erabiltzen du; "mestizajerik" ez. Buruz dakizkin euskal erro zarrak, bakanak eta guztiz ederrak, itsasoaren antzekoak; agortzen ez direnak.

"Bizkargi, odol mendi,
eziñaren gaitz lorei!" (Odol Mendi, 57 or.)



Itzak osotasuna agertzen dute aitzaren antzera ta lotura malloen kalparrarekin. Itzak nagusi, elkarteak indarra.

"Euri-jasa ezpa-litz, bota alean" (Basoan illa, 58 or.). Lerroan, itzak giltzarria-
ren tankera, loturak odolzuriaren garra.

"Ortzipean dingiliz illargia laru" (Gure arrantzaleak, 104 or.).

Ale bakoxa ain ezberdiña, lotura intza ezearen dirdaia. ¡Zenbateraño
indarra itzak! Otsa gordin mardula.

"Arro, zut abil, igelño" (Uts-lainoa, 108 or.).

Ortxen dugu izkuntzaren usaia, arnas betea. Lau itz, burnizko lokarria; atsa
ta garra, laguntza ta lillura.

:GELD1'

T n |
r st^

"Nini oztin dozan
urrjn-laztan leuna
itzak yoek gartu
ilbizi samurra
odei zuri musu" (Erritarra, 116 or.).

Lerro bat naiko, itz oyen edertasuna ikusteko; esnearen aparra bezalakoa.

Eta zer esan beste ontaz?:

"izotz ziztorra dindil xorta etengean" (Neguaren Egona, 294 or.).

Giro atsegín baten neurria; eresia, atsa, jauzia, arnasa, batez ere izkuntza,
itza txapeldun.

Eredu motz oiek aski agertzen digute izkuntza aga marduletan eraikia,
kemena ta indarra ageri, usai atsegiña ta gordiñaren ixter kementsuaren izerdi
ezea; ortxen daude zutik. Margolarien artean, margo gordiñak erabiltzen ditu-
nak, indar aundikoak, "CEZANNE" daukagu ezagunena; orlegiak giarra ta aza-
la dute, baita orlegiaren izerdia, gordin girokoa, osasunez lertzen, odolzuriz
aberats. Olerkarien mallan berdin gertatzen zaio Aita Shanti'ri; itzak arriaren
nortasuna, lotura arnasez ezin egonean, izkuntza txapeldun, giroa gaztea gor-
din kutsuarena, dirdai, argi, indarra odol bero.

Euskara berriz nortasun aundiz jantzia, nagusi ta benetan zarra, arbasoen
atsa, benetan gurea, aize bizi ta intza argitsu. Aita Shanti, euskal olerkari-
en gañetik dabilkigu. Euskara edergallu biurtu du.

Erabiltzen dituen gaietaz bi itz esan nezake. Aurretik datorrena **baserria**
da, gero **urtearok**, ondotik **abereak**, oso aipatuak **eusko gudariak**,
Amatx, **txoriak**, **gaztaroa**, **maitasuna**, **eriotza**, ta **amona**. Elizako gaiak
ere arkitzen ditugu: **Josu**, **Andra Maria**, **Santa Teresa** eta abar.

AITA SHANTI'REKIN ELKARIZKETAN

Aita Shanti'ren nortasuna, galdera berexi batueta, ere, dago.

Olerkiak ontzea, baita itz-lauz idaztea ta literatura ikertzea oso atsegin zaio nunbait.

"Nola egiten dituzu olerkiak?", galdetzen nion. Erantzuna: "Maitasun aundia ta indarra euki ezkeru, zaletasuna agertu ta alegindu egiten duzu, ta... norbera zai egon ezkeru".

"Milla Euskal Olerki Eder" liburua du, bere lanetan maitena.

Euskal literaturaren VI'garen atea da, amaitu nai luken lana orain.

"Bizkai'ko euskara nola ikusten duzu?", galdetzen nion. "Agiriko indarren benetako laguntza barik, erorian, landu bari"; erantzun borobilla.

Bizkai'ko euskara bizkortzeko, ikastetxetan irakatsi bear dela, uste du, baita agiritako toki ta komunikabideetan erabilli. Bizkai'ko euskara indartzeko, batez ere Bizkaeraz idazten, al duen guztia alegindu. Gipuzkeraz ere gai da askotan idazten.

Euskararen alde Bizkaia'n egin zen lanik ederrena auxe zeritzaion: "zalan-tzarik gabe, Sabino Arana'ren lan guztia, baita ere Azkue'ren lana eta abar".

Euskal literaturaren mallan, Orixe oso goien jartzen du ta onen lanetik egokiena bere ustez, euskararen egokitasunaren aldetik, "KITO'n Nere Arrebarekin" delako idazkia.

Euskalzaletasuna gazteetan nabaritu zuen.

Gaur, euskal giroa ez du ain txarto ikusten Bizkaia'n; "astiro doa", dio.


Aita Shanti ez da goi mallako Ikastetxetan ibilli. Orrelako aukerarik ez du izan. Karmeldarren etxetan ikasia da, baita asko espetxean, gero bizitzan nai-ko erne beti izana.

Naiko lana egiña dauka bizitza luze ortan, bitxi ederra Euskalerria'rentzat; paperik txikiena altxorra. Idazti guzti oiek Karmeldar eskuetan gelditzen dire. Orain gogoz jaso bear ori dena.

Aita Shanti Onaindia Euskalzaindiko urgazle izendatu zuten 1957ko Uztailaren 26-an Arrasate'n, eta gero "deduzko" kide edo oorezkoa 1979'ko Abenduaren 20-an.

Gaiñera EUSKERAZAINTZA'KO kide osoa daukagu asieratik (1980). Geroztik EUSKERAZAINTZA'KO kideekin lana gogotik egin du eta billeeretara illero bildu da. Azkeneko urte auetan maiz, Deba'n ikusi dugu; beti alai, argi, erne ta euskaldun.

LATXAGA



AITA SANTI ONAINDIA

1.996-ko Otsailla'ren 11-an, Gasteiz'en II zan Aita Santi Onaindia.

Biaramon arratsaldean, illunabarrean, bere bizirik geiena igaro eban Larrea'ko karmeldarren konbentuan, euskalzaleok bere inguruan batu giñan, oituraz esaten dan lez, azken agurra egiten.

Erriaren gogo eta adierazmena beste bat zan. An batu giñanok agur orde, gogoan zaitugu esan nai genduan ixiltasunak eta biotz-miñak erakusten daben argitasun eta zintzotasunagaz. Gogoan zaitugu eta izango zaitugu.

Izan be euskal etxe askotan, liburutegietan, hemerroteketan eta abarretan, aren idaztiak erabilgarri eta ikergarri izango dira.

Kontu egin Aita Santi 1.927 urtean asi zala aldizkarietan idazten.

Eta azken urtetan ezagutu izan dan aldizkarien boom arte, oraintsuarteko euskal argitapenetan gaitz aurkituko da bere lanen bat argitaratu ez dauanik.

Or doguz, bere frailekide izan dan Julen Urkiza'ren ikerketei esker, bere lanak irakurri leikezan albistari eta aldizkariak:

AGUR (illero, amabosteroko eta asteroko). Bilbao.

ARAN.— Arratia'ko aldizkaria.

ARANZAZU.— Arantzazuko fraileen argitapena.

BOGA-BOGA.— Ondarroako eleiz erakundearen boletina.

EGAN.— "Boletin de la R.S. de Amigos del Pais" en geigarria.

EUSKAL ESNALEA.— ("Euskalerrriaren Alde" aldizkariaren atala).

EUSKERA.— Euskaltzaindiaren aldizkaria.

EUSKERAZAINTZA.— Euskeraren Erri Akademiaren iru-illebeteroko aldizkaria.



EUZKADI.- Egunkaria. Bilbao.

EGUNA.- Euskal egunkaria. 1.937.

EUSKO GOGOIA.- Bi illerokoa. Guatemala.- Bajona.

GAIK.- Bilbao.

GOIZ ARGI.- Asterokoa. Donosti.

JAKIN.- (Iru-illeroakoa. Arantzazu-Donosti).

JESUSEN BIOTZAREN DEYA.- Bilbao.

KARDABERAZ.- Donosti.

OLERTI.- Larrea-Zornotza.

PRINCIPE DE VIANA.- Iruña.

PYRENAICA.- Mendizaleen aldizkaria. Bjlbao.

RENACER.- Gasteiz.

SASKI NASKI.- Illerokoa. Iru illerokoa.- Donostia.

YAKINTZA.- Donostia.

ZER.- Illerokoa. Euskerazaleak. Bilbao.

ZERUKO ARGIA (Asterokoa. Donosti).

Esandako onein gain, bere gogo eta yakintza oparo eskintzen ekian Karmeldarren argitapen izan diran edo ta diran.

KARMENGO AMAREN EGUTEGIA.- Larrea. Amorebieta.

KARMENGO ARGIA.- Illeroko aldizkaria.

KARMEL.- Bi illerokoa. Iru illerokoa.- Larrea-Zornotza.


GOIZNABAR.- Bilbao, 1.975. 243 orrialde.

LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LENGUA VASCA.- S. Onaindia-Gregorio San Juan. 1.975. 215 orrialde.

NERE BASERRIA.- Euskal Poema.- Aita Onaindia. 1.985. 187 orrialde.

Bere idazlanak, batzutan frailetasunak eragiñak, beti be kristau fedeari lotuta bizi ziranez, batzutak goralpen ziran, bestetan kritikak.

Esan lei Aita Santiren gogoia euskaldun guztiei zerbeit irakurri eragitea zala.



Victor Franceschi'ren CARBOÑES liburuan irakurten dana. An baltzen berezko etsipena eta nekea gogoratuaz:

Iremos al frente
de aquel restaurant,
solo a conjugar:
Yo como, tú comes.
... ¿El come?...
Nosotros comemos;
cuando todos comamos
seremos felices.

Orren billa ibili zan bera euskal munduan. Danok euskeraz irakurtearen billa.

Origaitik batzutan bizkaieratzen eta bestetan gipuzkeratzen alegindu zan. Eta bizkaieraz argitaratzen edo ta gipuzkeraz.

Eta bere liburu eta idaztien argitapenerako bear izaten eban dirutxoa atarateko edo lagungarri izateko, ba ekian idazleiauketetara lanak bialtzen, hundik deitu, ala idatziaz.

Sariak irabazten punterengotzat ezagutu zala, autortu bear.

Liburugintza

1.954 urtean asi zan liburuak argitaratzen. Ez ziran urte bare ta baketsuak euskal liburugintzan asteko. Zentzura denborak, zentzura bekaizti eta itsua, eta gero be, ortik igarota be, trabak, ostopoak, bir-ikusketak eta etoikeriak.

Urte orretan kaleratu zan MILLA EUSKAL OLERKI EDER deiturakoa, 1.115 orrialdez.

Beraz arduratu ziran Aita Santi eta Aita Lon'ek zerbait esaten ekien orduko joan etorrietaz. Zenbat istorio igaro bear izan eben, ia eguneroko baiketen bildurrez, kaleratutako aleak ezin zainduta.

Nire ustez, Aita Santiren luma eta eskutik kaleratutako liburuak, sailketa berezia bear dabe.

Batzuk argitaratzaile lez kaleratuak dira, iñork idatziak, Santi'k sarreraren bat edo aurkezpena eginda.

Beste batzuk euskeratzaile lez berberak argitaratu ebazanak, nai eta idazle jatorra besteren bat izan.

Ba daukaz alkar-lanean idatziak, baña argitarapenetan eskurik artzen ez ebala.

Eta ba dira bere sormenekoak, eta berberak argitaratuak.

Ikus daiguzan:

Argitaratzaille

1.956.- OLERKIAK. Felipe Arrese Beñtia.- 688 orrialde.

1.960.- BERTSO BERRI TA KANTA ZAR.- Tomo bi.

1.964.- ONDARRAK. Txomin Agirre.- 264 orr.

1.965.- JOLASKETA.- 585 orr.

1.966.- ABARRAK. E. Bustintza "Kirikiño". 335 orr.

1.968.- GIZA BIZIA.- 64 orr.

- GIPUZKOAKO DANTZA GOGOANGARRIAK = J.I. Iztueta. A. Santi'ren edeskera. 399 orr.

- IPUIÑAK. R.M. Azkue.- Bilduma ta itzaurrea A. Santi.

1.971.- GOIZNABAR. Olerki bilduma. 243 orr.

1.974.- ESKUTITZAK. EUSKAL LITERATURARI BURUZ. Idazle eta adiskideak berari egiñiko kartak. 302 orr.

1.974.- OLERIAK. E. Urkiaga "Lauaxeta".- 186 orr.

1.975.- LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LENGUA VASCA.- S. Onaindia, G. San Juan.- 215 orr.

1.978.- AZKATASUNAREN YARRAI.- J.A. Agirre. 415 orr.

1.980.- BIGARRENGO ABARRAK. E. Bustintza "Kirikiño". 206 orr.

1.981.- BIDE BARRIJAK. E. Urkiaga "Lauaxeta". 146 orr.

1.981.- GAURKO OLERKARIEN EUSKAL LAN AUKERATUAK.- 106 orr.

1.984.- EGOITZAK EDO BARNE GAZTELUA.- Sta. Teresa de Jesús.- 239 orr.

1.984.- OLERKIAK. Balendiñe Albizu. 259 orr.

1.985.- 25 ANTZERTI LABUR.- 167 orr.

1.985.- OLERKI GUZTIAK. E. Urkiaga "Lauaxeta".- 523 orr.

Euskeratzaille

1.963.- IRU POEMA. Rabindranath Tagore.- 176 orr. (Kuliska sorta-Donostia.)

- 1.965.- XABIERTXO. I. Lopez Mendizabal.- Bizkaieratzalle, A. Onaindia.
- 1.966.- BIRGILI. Idazlanak osorik.- 383 orr. Euskeratzaille. A. Ibiñagabeitia. S. Onaindia.- Argitarapena: A. Onaindia.
- 1.969.- AMAITU BAKO POEMAK (Poemas inacabados). L. Arostegi Gamboa. 97 orr.
- 1.982.- Intxitu eta lezeko ANTXIÑAKO JENTILLEN EZPIRITUA EUSKO LURRERA BIURTZEN DA. J. Arkotxa Goikoa-Leslie Mackenzie. 242 orr.
- 1.985.- JAINKO AÑTZERKIA. Dante Aleghieri.- Euskeratzalle ta argitaratzalle. 366 orr.
- 1.985.- ODISEA. Homero.- Euskeratzalle ta argitaratzalle. 337 orr.
- 1.986.- AGENDIA DIETARIO.- Euskeratzalleak: A. Onaindia, A. Zubikarai.
- 1.986.- FAUST. J. W. Goethe.- 305 orr. Euskeratzalle ta argitaratzalle.
- 1.987.- IPUIÑAK. Pio Baroja. 199 orr. Euskeratzalle ta argitaratzalle.
- 1.988.- MONOGRAFIA DE LA LEDANIA O CONCEJO DE AXANGIZ= M.V. Gondra.

Alkar lanean

- 1.956.- GOI ZALE.- Pi Etxebarria-Jagoba Onaindia.- 544 orr.
- 1.963.- EGUNEROKO MEZA.- J. Kerexeta, S. Onaindia. 859 orr.
- 1.963.- ON BIDEA.- Santa Teresa.- Eusk. L. Akesolo, J. Onaindia.
- 1.979.- ERKIJIO EZIKETA ARLOA.- Eusk. S. Onaindia. Zuzentzalle J.M. Rementeria. 117 orr.
- 1.980.- LA NAVIDAD EÑ EL MUSEO DE BELLAS ARTES. S. Onaindia, Juan Juaristi. 61 orr. "Temas Vizcainos" saillean.

Sormeneko lanak

- 1.966.- ENBEITA OLESKARIA.- 159 orr. (Kuliska sorta).
- 1.968.- LARREA ETA KARMELDARRAK.- 123 orr.
- 1.972.- EUSKAL LITERATURA I.- XVI, XVII, XVIII giz. 296 orr.
- 1.973.- EUSKAL LITERATURA II.- XIX mendea.- 480 orr.
- 1.974.- EUSKAL LITERATURA III.- 1.895-1.920.- 412 orr.

1.975.- EUSKAL LITERATURA IV.- 1.910-1.935.- 448 orr.

1.977.- EUSKAL LITERATURA V.- 1.915-1.940.- 464 orr.

1.978.- EUSKAL ELERTIA.- 230 orr.

1.978.- LAMIÑAK, ORRAZI ESKEAN.- 215 orr.

1.978.- LEYENDAS Y TRADICIONES VASCAS DE NAVIDAD. 53 orr.
("Temas Vizcainos").

1.981.- SANTA TERESA ELIZ IRAKASLE.- 128 orr.

1.982.- ARANA GOIRI TAR SABIN OLERKARI.- 168 orr.

1.984.- EUSKALDUÑAK ETA OSASUNA.- 180 orr.

1.985.- NERE BASERRIA.- Euskal poema.- 187 orr.

1.987.- GERNIKA.- 158 orr.

1.988.- OROI TXINPARTAK.- 472 orr.

Beste lanak

Ez ziran goiko zerrendetan amaitu bere lanak.

Geroago, larogeiak urtetan sartuarren, lanean ekin eutsan, lanak argitaratzen, ori zan bere atsegin, jolas eta bizigarri, eta arrezkero beste lan oneik kaleratu zitun:

1.989.- OLERKI GUL I IEÑ BILDUMA.- Julen Urkiza'k prestatua. 315 orr.

1.989.- SANTA TERESAREN BIZITZA. (Itzulpena) 380 orr.

1.990.- DONIBANEKO GURUTZ OLERKARIA.- 342 orr.

1.990.- EUSKAL LITERATURA VI.- Gure mendean. 318 orr.

1.991.- LIXIEUX'KO TERESE.- Itzulpena.- 318 orr.

1.992.- ODAK ETA EPODOAK. Orati, erromatar olerkari.- euskeratua. 316 orr.

Aipatu bearreko geiago

Orañarte esana asko dalarik, Aita Santiren bizitzako ekitaldien zerrenda orretan lagako ba gendu, ez giñake zeatzak izango.

Batetik gogoratu bearreko da Aita Santi erdal lan eta textu ugarien euskera-
ra itzultzaille izan dala.

Ez bakarrik eleiz gaietazko edo ta fedeari ikututen dautsen idazti eta lanen itzultzaille.

Or doguz gerkar klasikoen lanak eta latinezkoak. Or baita munduko beste izkuntzen literatura alorrean maisu eta eredu agertu diran idazleenak.

Or Garcia Lorca, Machado, Gabriela Mistral, Neruda, Papini, Selgas, Rabindranath Tagore, Unamuno, Verdaguer, Bretch eta abar, tankera ez bardiñetako idazleak, garratzak eta zorrotzak batzuk, minbera eta eztiitsuak besteak; zeatz-meatz idazten dakienak batzuk, zabal, aberats eta loretsuak besteak.

Idazleak zeatz itzultzen jakin bear dau, bakoitzaren nortasuna zainduaz, eta ez aren pentsabidea zainduarren, bere itz eta esanak eta esateko erak erraztasunaren egokitasunez zela-ala itxuratuta itxi.

Orretan alegintzen zan textuak zorrotz erabilten, baña ba dakie itzulpen askok, batez be zuzenetik egiñak ez diranetan, itzulpeneko pekatuz etorri ta norberari pekatu ori kutsatuten.

Or dagoz, baita, aldizkarietako artikuluak. Idazleari bere gatza eta ozpiña eskatuten dautsenak, egungotasun edo gaurkotasuna bear izaten dabenak, balioa galdu eragin barik, zimeldu aurretik irunsi bear izaten diranak.

Zenbat orrelako lan egunkari, aldizkari, tarteko liburuska eta antzerako orri eta paperetan?

Jo daigun asi zanetik gerra arteko lana, ordena estu bateko fraile barri baten lana izan zala, baña guda ondoren espetxe eta baĳketak jazan ondoren barriro lanean asi eta beste 43 urtetako lana?

Eta euskal idazleen edestilari lez, Euskalerrri osoan zear egon diran eta dagozan idazle ugari eta aberats, nai bein-beiñekoen bizitza eta zertzeladak batzen eta agertzen artu eta erabili eban lana?

Berari esker, aidean ezagutu ziran askoren goraberak, zeaztasunez jakiteko aukera dogu.

Onetan ezin ukatu Santi Onaindiak argibide ugari lortu ta zabaldu dauskuzanik. Eta ori egin bearreko lana zala ezagutu bear.

Argibide ta azterketa batzuk

Alkar-Zaneko ekintzetan.

Aita Santiren ekintzen artean "Karmengo Argia"ren denborako bat agertzen da.

Bera lankidetako bat Aita Lino Akesolo izan zan.

Lino Akesolo Derio'ko Udako Euskal Ikastaroerako baten omendua izan zanean, alkarrizketa bat egin eutsen.

Galderetako bat au izan zan:

"Zu eta Aita Santi gaztetatik bizi izan zare alkarrekin. Ze euskal lanetan artu dozue parte batera?"

– Bai, alkarrekin bizi gñan gure ikasurteetan, eta alkarrekin jardun dogu euskal lan batzuetan. Lenengo ta bein, Santa Teresitaren Arima baten Kondaira dalakoa, biok alkarrekin euskeratu genduen ogej urteren inguruan genbiltzala Gasteizko negualdi otzetan. Nik azken-eskua emonda gelditu zan neure euskuzko kopia baten; baiña galdua da.

Bigarren, Santa Teresaren Onbidea (Camino de Perfección) biok asi lenengo kapituluaz (Karmengo Argia aldizkarian), nik jarraitu gerratea etorri zan arte, eta azkenez, 1.962,an, bion artean amaitu (ak kapitulu bat eta nik beste bat) eta argitaratua.

Irugarren, euskerazko Liturgia asi zanean, domeka eta jaietako mezak fitxetan sarrera, oar eta guzti. Fitxa oneik gero Kerexetaren Eguneroko Meza liburuan sartu ziran.

(Lino Akesolo, **Idazian guztiak**, Karmel, 1.987-3. Julen Urki-za'k Aita Linori egiñiko alkarriketa).

"Karmengo Argia" zala ta beste baten, lenengotako arduradunen artean, au irakurri geinke:

"Aita Anbortsik artu eban lenengotan Lixieux'ko Teresetxuren gogoeta irakatsiak aztertzea.

Baiña andik laster Indietara bialdu eben, an Teologi irakasle izateko (eta azkenez gotzain egjin eben). Eta emendik alde egin ebanean, gai orretan Aita Santi gazteak jarraitu eutsan, meza emon baiño lenagotik asita".

Eta gerotxuago, garai aretako idazle barrien izenak azaltzen asten danean, jakingarri au emoten dau A. Lino'k:

"Eta Euskalerrian jarraitzen ebenetatik ez ziran batzuk luma makalak agertu. Len aitatu dot bat: Aita Santi (Jagoba, lgotz, beste izenez eta ezizenez) idazle gazteren bat eriotzak eroaten euskunean, illeta soiñu negartiak joten, edo beste edozertan, edo Ebanjelioko Zoriontasunak azaltzen, edo bertso lirikoak parra parra ateraten, beti egin eban zoli, aldizkaria bizi izan zan aldi gustian, orrek azkenera jo eban arte.

Beronek eta neuk artu gendun Ama Teresaren **Camino de Perfección** euskeratzeko lana. Zetako? Ze asmotan? Prailleak legetzat artuta euken, urtean bein, aparitan Ama Teresaren liburu ori irakurtea, guztjak ixilik entzuten ebela. Lege ori euskeraz betetako erreztasuna emotearren artu genduan lan ori. Lenengo kapituloa bion artean egin gendun (bakotxak bere zatia euskera-

tuta), nik egin nituan urrengo zortzi kapituloak. Urteak geroago, bion artean amaitu eta tomo baten argitaratuta dago orain Teresaren liburu ori euskeraz. **Igotz-Oba** izan zan artu gendun izen ordea. Igotz, Amoroto aldeko mendi baten izena eta Oba Dimako auzo baten izena".

Esan daigun **Karmengo Argia** aldizkariak bost urte ta erdi iraun zitula. 1.936'ko Dagonillean agertu zan azken zenbakia. Lau milla (4.000) arpededun lortzera eldu zan.

Liburuen zerrendan alkar laneko batzuk agertu dira.

Ontaz esan bear dogu Aita Lino'k ba dakizala bere idaztietan laguntza oneik autortzen.

"Karmel" aldizkarian 1.991 urtean, Etimologi billa deituraz Akesolo'k idatzitako lan baten au irakurten dogu:

"Aita Onaindiagaz batera, ba neroagoian Kepa Enbeitaren bertso lanak "Euzkadi" egunkari zarrean batzen...

(Etimologi billa. Karmel 1.991-3)

Lagunarteko lanei buruzko beste au:

"Gaztelu'ko seme zan Goikoetxea tar lñaki'k gertu eban "Musika lzilla" deiturako liburua.

Eta liburuan bertan be ba dauka Aita Santi'k bere eskua.

Ara zer diñon Aita Lino'k: "Liburu orrek eztau dana Gaztelu'rena. Aita Onaindia eta Orixe'k bere esku artu dabe or. Aita Onaindiak Joan Kurutzekoaren bizitzako barri emonaz, eta aren olerkien balioak azpimarratzen, eta **Cántico Espiritual** olerkiaren itzulpenaz, eta bardin Orixe'k berearenaz. Olan liburuak **Cántico** orren iru itzulpen emon zituen. Irurak egin dabe or, bakotxak bere saioa, Joan Kurutzekoaren erdal-olerkiari euskal doiñua emoten.

Karmel 1.990-3/4.

IRIZPIDE ETA ABURUAK

Liburu argitaldari, idazle, kontulari, olerkari eta abarretan nor izan dan iño-ren irizpide eta aburuz agertuko dogu.

"Gerraondoko argitara bideak malkartsuak izan ziren, oztopo administratiboengandik lehenengo eta euskal edizioen zabalkunde kaskarragatik gero. Patxi Unzuerrunzagak bere Zarauzko Itxaropena inprimategi/argitaletxetik, eta Aita Santiago Onaindia karmeldarrak Larreatik (Bizkaia), adibidez, egiteko ederra burutu zuten; besteak beste "Kulixka Sorta" edo Milla Euskal Olerki eder (1954) argitalpen giltzarriak izan ziren 1960 aurreko basamortuan".

(Euskara-Euskaldunon hizkuntza" Joseba Intxausti. 1.990)

"Nekatzen ez dan idazle ta argitaldari. Literatura sail ezberdiñak erabiltzen daki olertj, itzulpen, kritika, itz lauz...

"Karmel" eta "Olerti" sailen zuzendari da eta urtero eratuten dau Larrean "Olerti Eguna", aurrez olerki leiaketa iragarriaz.

Bere euskera garbi jokerakua da, gogortsua, errj euskeratik zerbait aldendua...".

(Karmelo Etxenagusia Uribe, "Euskal idazleen Lorategia, Bizkaieraz-Itz lauz" Derio, 1965)

"Idazle ugaria: eragille ta argitaratzaillen aspertu eziña. Nok esan zenbat lan egin dauan euskeraren alde, batez bere gerra osteko urte luze illunetan?

Bizkaieraz eta gipuzkoeraz, itz-lauz eta neurtitez, goj maillako euskera landu, garbi ta aberats bat lortu gurean diardu. lzen-orde oneik erabilten ditu: "Igotz", "Otarri" eta "O".

Bere idazlanik onenak oneixek dira.

"Mjlla euskal olerki eder". Euskal-poesiaren antolojirik andiena.

"Iru poema". Tagoreren iru poema euskeratuta. Bizkaieraz.

"Eguneroko mezea". Bizkaieraz.

"Gure bertsolariak". Gure bertsolari ta bertsolaritasuna ezagutzeko liburu ederra. Bizkaieraz.

"On-bidea". Santa Teresaren "Camino de perfección" euskeraz, aita Linorekin batean. Bizkaieraz.

"Jolasketa". Eskola umeentzako kanta, jolas eta ipuin lorategia. Bizkaieraz eta gipuzkoeraz.

"Birgiliren idazlanak osorik". Ibiñagabeitia eta bien artean itzulita. Gipuzkoeraz.

"Danteren Jainko-antzerkia". Danteren "La Divina comedia". Gipuzkoeraz.

"Odak". Horaciorenak. Gipuzkoeraz.

"Esoporen ipuiñak". Bizkaieraz.

"Larrea ta karmeldarrak". Bizkaieraz.

"Giza-bizia". Gipuzkoeraz.

(Mikel Zarate. Bizkaiko Euskal Idazleak" Derio. 1.970)

"Gure bertsolariak".— Irureun da ogetamaika orrialdeko lan mardula eskeitzen digu Aita Onaindiak bertsolaritzari buruz... Utsune ederra bete digu liburu onek. Ba dago bertan zer jakas... Emendik aurrera, bertsolaritzari buruz jardun nai duten guziak izango dute liburu onen bearra".

(Juan San Martin, "Egan" 1.965)

"Onbidea".— "Ba zan ordua, liburuaren itzaurrean irakurtzen degun bazela. Ba zan, bai, Teresa deunaren liburu eder au euskeraz ikusi genezan ordu. Au eta beste guztiak. Bañan au batez ere...

Biok, Aita Onaindia eta Aita Akesolo, karmeldarrak, zein baño zein sayatu dira beren egiteko zallean. Batek kapitulu bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez. Bizkayera jator jatorrean. Euskeratze lan erreza ez dalarik, naiko "errez" egiña. Ots, naiko argi. Emakume bizkor aren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain. errez aditzeko eran".

(M. Lekuona. "Egan" 1.963, 4-6)

"Jolasketa".— "Ia-ia seireun orrialde deukozan liburu lodikote bat geiago, Gaia? Euskaldun umientzako jolasak, abestiak, ipuiñak, irakurgaiak. Gauza asko, danetik pixka bat, euskal idazle ezagutuen atal egokiak eta erri-jakintza ta kantuetan kirian-kirian eraz ipinita urteko amabi illebetetarako.

Umeetxoentzako bakarrik ez da izango liburu au. Urteetan aurrera gozantentzako be liburu-egokia dogu beran.

(Nikolas Alzola Gerediaga, "Egan" 1.967 1-6)

"Milla euskal-olerki eder". "Liburu eder ortan oraindañoko euskal Olerki osoa arkitzen dugulu esan diteke: antziñako guda-kanta zaarretatik asi-ta egunda-ñoko gazte berri-zaleen itz nourtu "zazpiki"-etaraño. Bidez-bide erritar bertso, maite-lelo, irri-kopla, jainkotiar, kantika ta gure Ijiriko ikasi olerki garaienak agertzen dizkigularik... Artobero usairik gabe esan dezakegu: Euskal-Olertia ugari ta goitar dala ta beste edozein erritakoa bezin eder ta bikaina, bakoitzaren neurriaren arabera.

A Onaindiak maite ditu iñon diran euskal olerkari guziak. Bikaintasunari ezik ugaritasunari leku eman dio. Leku oparo ta zabalegia, bear ba da. Bertan bein-beineko olerkari asko sartu ditu, bertsogintzan gaztearoko pekatari besterik izan ez diran batzuek. Guziak bildu ditu bere galtzarpe beroan gure praile mauka zabalak. Aukera ez da danen gogoko izango. Bañan ezin ukatu nekearen beldurrik gabe arduraz eta garisu lan izugarri bat burutu duna.

"Milla Euskal-olerki eder" liburu bikain onek, euskaldun sendi ta etxe guzietan bear luke toki berezi bat".

(Antonio Labayen "Ibalan", "Egan" 2-4, 1.954)

"Milla Euskal-olerki"ri buruz jakingarri da baita Andima Ibiñagabeitia'ren irizpidea: "Gure izkerak ere, askotxok uste izan ez arren, badu bere olerki arrobia Arrobi oparo ta sakon orren yabe egin nai lukenak ar beza A. Onaindiaren liburua eskuartean. Antxen arkituko dira mota guzietako olerkiak, bertsuak, poemak, izkera arroenen aitzinean bat ere lotsa gabe aurkeztu ditezken poesi zoragarriak.

Aspalditik zebiltzan bizpairu euskaltzale eun olerki onenak bildu bear zitutelata. Ordago ederra yo die Onaindiak euntxo biltzeko ere gai izan ez diran oriei.

Bakoitzak bere keru ta ao-goza ditugu. Onaindiak ere berea. Orregaitik ez da erreza esatea beti olerki onenak aukeratu ala ez. Olerkari banaka batzu ez ditu bear bezala nabarmendu ematen dizkigun aien olerkietan. Alare izenak eman dizkigu eta ez da gutxi... Olerkari berri-zale (modernista) zenbait ere eskaxegi aukezten dizkigu. Ez dala oben larria esango du norbaitek... Nik berriz emen aipatzen diran olerkari (?) eta olerki asko, ez nitun aintzat artuko, ezta bilduman ezarriko... Dana dala lan izugarria eta bear bearrezkoa Aita Onaindiak egin diguna.

(A. Ibiñagabeitia.– Eusko Gogoia. 1.955, 1-2)

Jakin daigun baita Aita Santiren bibliografia argitaratu dauan Julen Urkiza karmeldarraren iritzia:

"Zelan klasifikatu geinkez Aita Onaindia eta bere lana?: Euskal langille ugaritsua da.

Nik ez dot ezagutzen Euskal Herriko historian, ez atzo eta ez gaur, euskeraz horrenbeste idatzi eta argitaratu dauanik... 18.000 orrialde inguru! Kantitatez ugaritsuena...

Euskera menperatasunez erabiltzeko gaitasuna edo ta erreztasuna izan da bere kalitaterik onenetariko bat. Bere LAMIÑAK liburuan erakusten deuskun lez, euskera ona erabiltzen dakiena da bera.

Nire ustez Aita Onaindia euskal kulturaren dibulgadorerik haundienetakoa dogu, gehienetan gazetarien estilo, espiritu ta arintasunez. Literato-garra, sena ta irudimena daukoz, sormena baino gehiago behar bada.

Dibulgadore haundia izan da bai; han-hor-hemen ikusi ikasiak bere lumaren bidez euskal munduan zabaltzen ahalegindu dan gizona dogu.

Horregatik ez deutso inok eskatuko ez sakontasunik, ez teknika-sistemako seriotasun arduratsurik...

(Julen Urkiza. S. Onaindiaren euskal idazlanen Bibliografia. 1.989)

Gure egunetara urreratuta, EUSKERAZAINTZA'ren zenbaki onetako errialdetan Latxaga'ren beretzazko lan bat dator. Santi il aurretxoan beragaz euki eban alkar izketa baten ondoren egindako lana da.

"Aita Shantiren lanetatik onena bere olerkiak deritzaizkigu. Aita Shantiren olerkiak neurtzera goazela, danez gain sarrera bezala, asmo zabal batzuek esatera gatoz.

Lendabizi olerki alorrean, oso motz jantzia nagola aitortu bear eta Aita Santiaren lana oso aberatsa izaki. Geiegi neretzat".

Eta Aita Santi berberak zer esango ete leuke?

Ziurretik, bere lanik atsegiñena, olerti saillean egin eban.

Olerkia zer dan eta abarrei buruzko idatzietan, argi ikusten eta igarten da bere griña, bere arra.

Berak esaten ekian lez, "apaltasuna egitan ibiltea dan ezker", ez daki bere olerkien edertasunik eta samurtasunik ukatzen.

"Olerkigintza gogotsu samar ekin dautsot, neure bizitza zear"...

Zornotza'ko erriak eskeini eutsan omenaldian agertu zan bere "Olerki Guztien bilduma" liburuan diño: "Neuk uste baiño olerki geiago osotu nebala, 310tik gora dira guztiz, ikusi izan dut".

Bere esanetan Juan Mari Lekuonak egin eutsan sarrera "goralpen geiegiz bear ba da, baiña egiari berea eskiñiz" izan zan.

Eta geroago Lekuona'k diño: "Esan dezagun Olerti aldizkariak nortasun poetiko jakiña ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztanle eta defendatzaile izan dugunari. Aldizkariak behartu du poesiaz gogoetak egitera, zenbakien osagarri eta aberasgarri diren formak sortzera edo ta itzultzera, eta belaunaldi berriei beren lekua ukatu gabe, gerraurreko olerkarien babesle geratzera, joera berriagoen aurrean lehenagokoaren testigantza eginez".

Eta orreri, Onaindiak berea sartu ta geitzen dautso: "Egi utsa, askok ez dakiena".

Geroago Lekuonak omenaldiko itzaldian "Ur egalean" izeneko bere olerki eredutzat irakurri ebalu gogoratzen dauanean eta olerki orrek "negar anpuluh begi asko bete zitula" gogoratzean, bere aldetik autortzen ausartzen da: "Anzetezko poemak, guda oiñean be, ez nitun gitxi arildu".

Orrela berez, "ex abundantia cordis" autortzen ekian beragan eukan olerkari gaitasun eta duintasun doaia.

Nire ustez, berberak gogoko eban besteen autotik entzun eta zindotzea, olerkari sena eta gaitasuna beragan eta berezko zitula.

Aita Santiren fitxa laburra

Jaiotza: Amoroto (Blzkaia), Atxuriarte baserrian, 1.909 urteko Epaillaren 24an.

Gurasoak: Migel Onaindia eta Jakintza Bazeta.

Amabi urtedun zala, Larrea'ra, berak esaten ekian lez, erdera ikastera, fraile deia igarten ba eban, ortan geratzekotan.

Fraile ikastaroak: Larrea, Markina, Gasteiz eta Bilbao'n.

1.934-an abadetzako ordena artu.

1.936-an, Euzkadi'ko gudan, gudarien gogo-zain.

Guda amaitu eta espexetara, Sevilla'ko Carmona'tik azkatu arte.

Nai ta epai-zigor luzea euki, 1.949 urtean eldu jakon azkatasun ori, baiña Euskalerrian geratzeko debekuagaz.

Origaitik Cantabria'ko Hoz de Anero'ra bialdu eben, Karmeldarren ordenak bere arauak zorrotz bete al izateko aukeratuta daukan konbentura.

1.951 urtean etorri zan Euskalerrira, eta arrezkero emen ibili izan da, geien-tuen Larrea'n, batzutan nagusi, bestetan tarteko.

Il arterako azken urtetan, azken 37 urtetan, Eibar'ko nagusi lez egindako iru urte kendu ezkeru, Larrean euki izan eban bere egoitza.



Eriotza Gasteiz'en, karmeldarrak an dauken eritetxean, mutu, baiña atzamarrekin gora ba eioala-ta, 1.996'ko Otsaillaren 11'an azken arnasa emonaz.

Eta 12'an, biaramonean, Larrako eleiza eta konbentu aurrea eta klaustroa betien bete egozala bere anai-eleizgizon, abade, jarraitzaille eta ikasle ta irakurleen esker-omena.

Orra or R.I.P. eskatu daben urteen urtetako euskal idazle, kritikolari, irakasle, kronikalari, argitaldari, sermolari, eta olerkari erraz, argi eta biotztunaren gain gaineko fitxa laburra, bere adiskide, lankide ta zirikalarj izan giñanotako batek egiña.

Gerokoak geituko dabe euskeraren bizitzan euki dauan eragiña.

ZUBIKARAI tar Augustin





AUNTZ-BASATIA...

Gaztetxoentzat antzerkja...

Maitagarria...

Ama...

Errosa...

Argi...

Maritxu...

Auntz-basatia...

Txingurri...

Zuaitz-ederrez inguratutako toki bat degu iruditegia... Iruditegi atzean etxe eder bateko sarrera atea... Iruditegia irikitzean lau neska-koxkor kantari... eta dantzari...

Neska-kox...

Amandre gona gorri,
zeruan zer berri...?
Zeruan berri onak
orain eta beti...

(Une bateko atsedena...)

Amandre gona gorri
lurrean zer berri...?
Egunez Eguzkia
gauetan Illargi...

(Une bateko atsedena...)

Amandre gona gorri
etxean zer barri...?
Aita fabrikan eta
ama sukaldari...

(Une bateko atsedena...)

Amandre gona gorri
errian zer berri...?

Elizan meza eta
plazan erromeri...

(Eta "ja, ja, ja, ekingo diote danak batean...

Etxeko atetik agertuko da Maitagarria argitan blai...)

Maitagarri... Ederki, neskatxak... Ederki abestu dezute eta ederki dantzatu ere... Eta atsegin ba zaizute ipuitxo bat kontatuko dizutet nik orain... Nik kontatu eta zuek antzeztu... Zaudete, bada, erne...

(abestuaz...)

Kanta dezagun, dezagun kanta
gure gaurko ipuitxo...
ama bat eta iru alaben
ipuitxo egiatzkoa...
Tartean dira Auntz-basatia,
tartean Txingurritxo...
Ipui onek e, bestek bezela
azkena du pozezkoa...

Eta zuetako batek, ortarako, "ama" izan bear duan ezkerero, zu aukeratzen zaitut "ama" izateko... Eta "amatxo" izango dezu, emendik-aurrera zure izena...

Eta entzun zaidazu orain ondo:

Bere-berea du gure amak
"ttantto zurizko" soiñeko,
buruan zapi zuria eta
lepotik-bera lepoko...
Mantala berriz, zeru kolore
galtzetak zuri, neguko,
abarkak berriz bigun-bigunak
narru gozoz egindako...

Zoaz, bada, eta jantzi zaitetz esan bezela...

Eta orrela jantzitakoan zatoz berriro, eta zu izango zera ordutik gure "amatxo"...

(Eta jeiki, eta iruditegi-atzeko etxe ederrean izkutatuko da...)

Errosa, Argi eta Maritxu, ni asiko naiz kantari eta jarraitu zuek gero...

Txalo-pin, txalo
gure Amatxo
bere burua
apaintzen dago...

Ea, zer esaten diguzun orain zuk, Errosa...?

Errosa... (Tentetuaz)

Txalo-pin txalo
gure Amatxo,
soiñeko berriz
dotore dago...

Danak... Ederki, Errosa...

Maitagarri... Orain zuk, Argi...

Argi...

Txalo-pin, txalo
gure Amatxo,
laister gurekin
ementxe dago...

Danak... Ederki...

Maitagarri... Eta orain zuk, Maritxu: zu bait-zera gu-danotan gazteena...

Maritxu...

Txalo-pin, txalo
gure Amatxo,
gurekin dago...
Bego, ba-dago...

Maitagarri... Oso ederki, Maritxu...

(Eta txaloak jotzen asiko dira...

Eta txaloak jotzen ari dirala, agertuko da Amatxo bere jantzi berriaz, eta besteengana etorriko da...)

Amatxo... Ona ni emen, zuen ama biurturik... Onerako izan dedilla eta ez txarrerako...

Maitagarri... Onerako izango da, Amatxo...

(Eta lurrean eseriko da, besteekin batera, Amatxo...)

Zure txanda da orain, Errosa... Adi ezaidazu ondo, zuri ere kantatuko dizudan bertso au:

Zure txanda degu orain-da,
jostun zera izango zu...
Ari ta orratza, titare eta
guraizak bear dituzu.
Zapitxo bat lanerako ta
aulkitxo bat eser-leku...

Jostunak beti izan dirade
jostundegian berritsu...

(Txaloak joko dizkiote...)

Ba-dakizu, bada... eta etorri zaitetz jostun biurturik...

(Jeiki, eta etxean izkutatuko da Errosa iruditegi-atzean...)

Amatxo... Sukaldeko mai-gaiñean utzi dizutet ezta eta ogia, gose zerate-nean, jan dezazuten... Eta Maitagarria-k iñungo-trabarik ipintzen ez badigu, kanta dezagun orain ere, leen kantatu dezuten bezelaxe... Eta ni asiko naiz kantari, zuen amatxo naizenez...

(Abestuaz).

Kraskitin, kraskitin
larrosa krabelin...
Maritxu gurea
etxeke erregin...

Maritxu...

Kraskitin, kraskitin,
larrosa krabelin...
, Argi dut nik aizpa
etxeke poxpolin...

Argi...

Kraskitin, kraskitin
larrosa krabelin,
larrosa krabelin
kraskitin, kraskitin...

(Eta Errosa agertuko da, ekarri-bearreko guztiak eskuetan dituala).

Errosa... Ona ni ere emen... Asi dezakegu lanean, ama...

Amatxo... Asi dezakegu, bai...

Maitagarri... Oraindik ez...! Ospa dezakegu aurretik, gu-guztion alkartzet...
au... Eta gabiltzan arin-arin, erromerian bezela, alkarri eskuak emanaz...

(Eta ala egingo dute Maitegarri, Amatxo, Errosa, Argi eta Maritxu-k... Eta Maitagarri kantuan asten danean, salto ta brinko, izkutatuko dira iruditegi-atzean ikusleen ezker-aldetik...)

Goazen guztiok, salto ta brinko,
bazter guztiak poztera...

gure oraingo alaitasuna
guztietan zabal tzera...
Famili eder osatu degu...
alkarren maiteak gera...
Iñork ez dezan sekula ausi
gure maitasun lotura...

Ea, bada, goazen salto ta brinko...

(Eta "la, la, la, la" kantari izkutatuko dira danak...)

(Gorri biurtuko dira iruditegiko argiak... Eta ikusleen eskubi-aldeko iruditegi-
aotik Auntz-Basatia agertuko da poliki-poliki baztar guztiak usaituaz...)

Auntz-b... Uuuuu... Uuuuu, Uuuuu...! Ona ni ere emen, emengo pake eta
alajitasuna kentzera etorria... Uuuu... Uuuu... Auntz-Basatia naiz ni, eta billatzen
dedan guztia jaten dut... Jan baño geiago irentsi... Uuuu... Uuuu... Berdin zait
abere edo gizaki: gizon ala emakume: zaar edo gazte... Uuuu... Uuuu... Eta
nere usmamenak esaten didanez, janari goxoak daude emen neretzat: neska-
gazte xamur eta ederrak: azkarrak, txintxoak, bizkorak... Uuuu... Uuuu...

Auntz-Basatia nauzu,
mendiz-mendi nabillena...
Kras, Kris batean jateko prest
aurrean jartzen zaidana...

Banoa, bada, nere izkutura, eta egon nadin an zai, nor etorriko, kris, kras
batean, jan dezadan osoro...

(Eta iruditegi-atzeko etxean izkutatuko da...)

(Eta ikusleen ezker-aldeko iruditegi-aoan agertuko da Txingurri...)

Txingurri... Egia esan, ez naiz aundia... Oso txiki-txikia naiz Auntz-Basati
orren ondoan... Eta ala ere, ez diot bildurrik... Or izkutatu danez, entzun deza-
la orain nere kantua:

Zu Auntz-Basatia zera...
Ni berriz, Txingurritxo naiz,
txingurrietan txikiena:
ozka ta ozka asten ba-naiz
laister da zure azkena...!!

Eta izkuta nadin etxe onen inguruan, nere bear izango duten arte... Emen
bait-datoz, salta ta brinko, Amato, Errosa, Argi eta... Maritxu... Ez dakite
gajoak, nor duten zai etxe-barruan... baiña erne egongo naiz ni...

(Eta bijoa bere izkutura...)

(Eta salto eta brinko sartuko dira etxearen beste aldetik Amato, Errosa,

Argi eta Maritxu "la, la, la, la" kantari... Bakarrik utzi ditu Maitagarria-k... Ez dator auekin...)

(Lurrean eseriko dira, Errosa ezik... Bere aulkian eseriko da au...)

Amatxo... Aurrera dijoaz arratsaldeko orduak ere, eta laister dezute meriendatzeko ordua... Leen ere esan dizuetet mai-gaiñean utzi dizuedala ezta ta ogia... zuen eztarria leguna egon dedin beti, eta indartsu eta ederrak zuen gorputzak.

Errosa... Norentzako izango da, Amatxo, nik egingo dedan soiñeko au...?

Amatxo... Etxekoak bearrik izaten ez ba-dezute, eskean etorriko zaigun lenengo neskatxarentzat izan dedilla...

Argi... Ederki, ama... Guk ba-degu, gaurkoz, naiko...

Amatxo... Eta zuk, zer diozu, Maritxu...?

Maritxu... Pozik artuko nukela neretzako... Baiña eskean datorrena ni baño beartsuagoa baldin ba-da, izan dedilla beretzako...

Amatxo... Ederki, Maritxu... Eta zu, Errosa, ordua da, zoaz etxera meriendatzera: zure ogia eta ezta jatera...

Errosa... (Jeikiaz) Ba-noa, bai, ama...

Ogi ta ezti
guretzako bedi
arratse-janari
orain eta beti...

(Eta etxean izkutatuko da salto batean...)

(Ura etxean sartuaz batera trumoi antzeko orru bat entzungo da, eta itz auek astiro-astiro esango dituan abots illun eta lodi bat...)

Auntz-b... Uuuuu... Uuuuu... Uuuuu...

Auntz-Bastia nauzu
mendiz-mendi nabillena...
Kris, kras batean jateko prest
jostunerik ederrena...

Amatxo... Trumoa zirudin orrek...

Argi... Ezin ordea, ama... Ez bait-da zero osoan laiñorik ikusten...!

Maritxu... Utzi ditzagun trumoiak eta kanta dezagun zerbait ama... Kante-rako gogoia det nik, gaur, eta...

Amatxo...

Goiko sukaldean
ontzi ederrean
ezti gozoena
zuen zai maiean...

Zoaz, bada, orain zu, Argi... Zure aizpa Errosa-k eztirik-gabe utziko zaitu bestela... Ondo bait-dakizu nolako gozo-zalea dan zure aizpa ori...

Argi... Ba-noa, bai, ama... Ez nuke eztirik-gabe gelditu nai eta...

Ezti gozo ona,
nere ao goza
kanta dezan beti
eztiaren kanta...

(Eta irudetegi-atzeko etxera zuzenduko da saltoka... Eta an sartzearekin batera, orrua eta Auntz-basatiaren itz illun-lodiak entzungo dira berri...)

Auntz-b... Uuuuu... Uuuuu...

Auntz-Basatia nauzu
mendiz-mendi nabillena.
Kris, Kras batean jateko prest
neskatxarrik bixkorrena...

Amatxo... Jesus...!!! Zer gertatzen da or...? Trumoiak jotzen duala esango nuke, eta gaurko eguraldiak ez du orrelakorik: ederra da, eta urdin-urdin dago zerua...

Maritxu... Ala da, ama... Baiña ni bildurtzen asia naiz... Ez ote dute oke-
rren bat izan Errosa-k eta Argi-k...? Ezti pixka bat ogi zati batekin jateko, ez
ote dute denbora geiegi egiten sukalde goi ortan...?

Amatxo... Antzeko zerbait esango nuke nik ere... Zergatik ez zera jjoaten,
eta zer gertatzen dan, ikusten...?

Maritxu... Bildurtu egiten naiz, ama...

Amatxo... Ez da orregatik bildurtu bear, Maritxu ... !! An aurkituko dituzu,
gozotan blai, zure bi aizpak... ETa ezer gertatuta ere, emen gelditzen naiz ni.

Maritxu... (Jeikiatz) Ondo dago, ama... Zuk nai dezulako joango naiz nere
aizpa oien billa...

Ez ezti, ez ogi,
ez bait-naiz gose ni...
Zuk agindua da,
neretzako ezti...!!

(Eta salto batean joango da etxeraño... Baiña atera irixtean, Auntzaren orru eta itz illunak entzungo dira, eta amarengana itzuliko da bildurturik Maritxu...)

Auntz-b... Uuuuu... Uuuuu...

Auntz-Basatia nauzu,
mendiz-mendi nabillena
Kris, kras batean jateko prest
neskatxarik politena...

Maritxu... (Ama besarkatuaz) Ama... ama... ama ^{||}Au bildurra ^{||}Tro-
moiak eztanda egin dik belarriko zuloan... Ama barkatu... Baiña nik ezin deza-
ket zure nai ore bete... Barkatu, ama... barkatu...!!

Amatxo... Ez zaitez bildurtu. Maritxu... Eztanda oiek eta trumoi oiek, uda-
ko ekaitz-kontuak dira... Eta naiz guk emen zerua urdin-urdin ikusi, ekaitza da
nunbaj, emendik gertu... Gelditu zaite ba zu emen, eta ni joango naiz gora,
eta orduan ikusiko dezu, ez dala emen ezer-txarrik gertatzen...

Maritxu, Maritxu,
zergatik estutu...?
Ez dago or inor...
Egon trankil ba zu...

(Eta etxean sartzen danean betiko orrua eta itzak).

Auntz-b... Uuuuu... Uuuuu... Uuuuu...

Auntz-Basatia nauzu,
mendiz-mendi nabillena,
kris, kras batean jateko prest
amatxorik txintxoena...

(Eta itz auek entzutean, bildurrak alde batera utzi, eta salto batean sartuko da Maritxu ere etxean eta Txingurri agertuko da izkutatu zan tokitik...)

Txingurri... Eldu da nere ordua... Ez naiz ni inor Auntz-Basati batekin
burrukatzeke... Baiña ba-ditut nik ere triki-mikiak, eta, auri esker, piztirik gaiz-
toena menderatu dezaket... Eta zergatik ez, Auntz-Basati au...?

(Eta etxeko atean agertuko da Maritxu negarrez).

Zergatik ari zera negarrez, Maritxu...?

Maritxu... Ai... ai... ai... Or goian Auntz-Basati bat dago lo... Eta Auntz
orrek jan ditu nere ama eta nere bi aizpak... Ai... ai... ai... Bakar-bakarrik geldi-
tzen naiz munduan... Zer egin bear det nik orain...? Ai... ai... ai...

Txingurri... Ez zaitez bildurtu, Maritxu... Nik ilko det Aúntz-Basati ori... Eta
nik itzuliko d;zkizut berriro ama, Errosa eta Argi...

Maritxu... Ezin ordea... Mamurru bat besterik ez zera zu arentzako, eta Kris-kras batean jango zaitu zu ere...

Txingurri... Ez, Maritxu, ez...! Nik ere ba-ditut nere trikimaiñak... Eta nik menderatuko det Auntz-Basatia eta bizirik aterako, aren sabeletik, zure ama eta bi aizpak...!!!

(Eta salto batean sartuko da etxean...)

Auntz-ba... Uuuuu... Uuuuu... Uuuuu...

Auntz-Basatia nauzu,
mendiz-mendi nabillena,
kris-kras batean jateko prest
txingurririk txikiena...

Maritxu... Galdua da... Alperrik asiko zaio ozka eta ozka... Alperrik sartuko da Auntz-Basatiaren illeartean, eta pik eta pik asiko... Ez du Auntz-Basatia ezin-egonik, eta saltoka eta jauzika ipiñiko... Nere miñak ez du pozik izango... Umezurtz izango naiz betirako... Ez amarik, ez aizparik, ez det geiago izango... Umezurtz, umezurtz betirako...

(Eta ontan ari dala, ots aundi bat entzungo da... Auntz-Basatia leiotik-bera erori ba-litz bezelako otsa...)

(Eta Txingurri agertuko da etxeko atean...)

Txingurri... Maritxu ^{du}lla da Auntz-Basatia... Leiotik erori, eta lertu egin da lurra jotzean, eta erraietatik... zera....

(Eta etxe-albotik agertuko da Maitagarria, Amatxo, Errosa eta Argi eskutik dakarartzela...)

Iruditegiak argiz-blai bear du Maitagarria agertzean...)

Or dituzu, Maritxu, bizi-bizirik zure ama eta zure bi aizpak...

(Eta laurak besarkada estu batean lotuko dira...)

Une batzuen ondoren Maitagarria asiko da izketan...)

Maitagarri...

lñork ez zuan petsatuko-re
orrelako gauzarikan...!
Txingurri txiki-txikitxo batek
Auntz-Basati bat mendean...
Biotzak ere jzan oi dute
bere indarra askotan...
Eta Auntzaren biotz txikiak
indar gutxiago zuan...

Eta orain, Maritxu... nola ordaindu bear diozu Txingurri txiki oni egin dizun mesede aundi au...?

Maritxu... Nik ez daukat ezertxo ere...!

Amatxo... Txingurri danez, anega bat gari emango diogu...

Txingurri... Nere zakutxoan ez da anega bat gari sartzen, eta nere errotatxoan ere ez da ainbeste eiotzen...

Errosa... Anega erdia emango diogu ortaz...

Txingurri... Nere zakutxoan ez da anega-erdirik ere sartzen, ez eta nere errotatxoan ainbeste eiotzen...

Argi... Lakari bat orduan...

Txingurri... Nere zakutxoan ez da lakari bat gari sartzen, eta nere errotatxoak ez du ainbeste eiotzen...

Amatxo... Guk ezin asmatu degu zer eman... Eta zuk, Maritxu, zer emango zenioke zuk, orrelako mesede aundia egin dizun Txingurri-ri...?

Maritxu... Nik, ama, gari ale bat emango nioke bakar-bakarrik...

Txingurri... Ori bai, Maritxu, ori bai... Ori sartzen da nere zakutxoan eta baita nere errotatxoan eio ere...

Maitagarri...

Txuri eta gorri,
kikiriki-kiki,
ipuitxo au bedi
amets eta egi...
Kikiriki-kiki
txuri eta gorri...

(On Manuel Lekuona-ren ipuitxo batetik asmatua...)

Anastasio Albisu Ayerdi
1995-XII-15

ESALDI JATORRAK

- Orain GIZON AUNDIA DA, baña gaztetan, TXOKATZAT (pito del sereno) artzen gendun.

BERA AÑAKORIK EZ DALA uste duten oyetakoa da.
Automobillean dijoala, adiskide bat oñez ikusita, gelditu ta ala ala galdetu zion:

- ERAMATERIK nai al dezu?

- ÑUNDIK EDO ANDIK eskuratu bear degu.

- Errez egin al dezu?

- Bai zera! ARNASA ESTUTZERAÑO BEARTU NAIZ.

- IZATEZ Gasteiz'koa al zera?

- Iñor alakoa izatekotan, AUXE EGIÑ-EZIÑA!

- Ñagusiya etxean al dago?

- Ez! ILL-GUZIYAN EZ DA IZANGO, oporretara joana da.

DAN BATEKOA EMANAZ atea BEREZ itxitakoan:

- Aizea da Ñunbaitte!

- Ordu-erdi bat ba-daramat IBILLIAN!

- Aurra ona dezute; ONA BEZELAKOA ERE...

Kuba'ra zijoan bati:

- Ongi ibilli, Joxe, KUBA ALDEAN!

- Nagusiya etxean al da?

- Bai! ETXE-ALDETIK DA; laister azalduko da.

ESALDI JATORRAK

■ Aita nola dago?

– Ez aurrera eta ez atzera; BERE ARTAN DAGO.

– Bere bizitzako gertakizun askotan, TARTEKO IZAÑA naiz.

Txapala sarritan ondatzen duan bati:

– Aurtengoa iya egiten dezun...

– Aurtengoa EGINGO AL DET...

– Iñor ba'da, orixe BARREN-TXARREKOA!

– Klean AURREZ-AURRE aurkitu arren, burua makurtu, ta EZ IKUSIA egi-
ñaz aurrera jarraitu zuan.

- Guztia EZ-USTEAN gertatu zan.

– Etxean SARTU ORDUKO, ama lanean asten da.

– Ba-dakigu DIRUTAÑ ZAUDELA!

Goizean jeiki ta zer giro dagon jakin nairik:

– Ateri dago, NOSKI, EZ?

– Au ere egin bear al det?

– JAKIÑA-BA!

Oso nekatua zegon batengatik (Erderaz no se podía tener de pie): (Zutik ez
egon zen ordez):

– Zutik egoteko gauza ere ez zan.

Eguraldi ona zalakoan, etxetik irteterakoan eudiya ikusi ta:

– Eudiya DA-TA!

– Senarra zer moduz, Maria?

– Gaizki!

– Zer-ba?

– BURUTIK NASTEN ERE ASI ZAIGU TA...